

Urte berri on!

Oporretara goaz, hurrengo Guaixea urtarilaren 11n izanen da



Hamasei herritan 24 lan egiteko Nafarroako Gobernuak 1,5 milioi euro eman ditu / 6

Lakuntzako Udalak hurrengo bi urteetan igerilekuan lanak egingen ditu legedira egokitzeke / 9

Etxarri Aranazko plazako kiosko-estaloa mustutzeke ekitaldia egingen da bihar, 19:30ean / 10

Sakanako Xake Txapelketa bihar jokatu da, 10:00etatik aurrera, Satrustegin / 25

II. Etxarri Aranazko Txakurkrosa antolatu dute igandean Etxarriko kanpinean, hiru modalitatetan / 25

'Zama doinuz arindu' euskal presoen aldeko jaialdia ilbeltzaren 13an izanen da, Etxarrin / 29

Etorkizuna taldeak 25. urteurrenaren amaiera emanaldia egingen du igandean, Burunda frontoian / 30



Ur goiena, ur barrena, urteberri, egun ona...

FRANCIS IRIGOIEN



GUILLERMO URKJO



GUILLERMO URKJO

Erkuden Ruiz Barroso

ARBIZU / ETXARRI ARANATZ

Derrigorrezko galdera, zergatik orain?

Pello. Hori da jendeak galdetzen duena. Zergatik orain, taldea hain ondo kokatua dago, hainbeste kontzertu egiten direnean eta horren harrera duenean. Taldearen harrerarekin zerikusirik ez duen erabaki bat izan da. Erabaki artistiko bat izan da. Estilistikoki edota artistikoki beste ibilbide batzuk hartzeko unea heldu zitzaigula pentsatu genuen eta beste proiektu batzuekin aurrera egiteko Vendettari amaiera ematea egokiena izanen zitekeela uste genuen. **Hamar urte atzera eginen dugu. Nola sortu zen Vendetta?**

Luisillo. Javiero eta biok Skalariak taldetik gentozen. Enrikko eta Ruben ere azken etapa horretan egon ziren. Beraz, ska egiten zuen banda bat zen. Ska-

"Vendetta bukatu da"

LUISILLO KALANDRAKA ETA PELLO REPARAZ VENDETTA TALDEKO KIDEAK

Bost disko, 60 kanta eta ehundaka emanaldi egin dituzte, Euskal Herrian zein kanpoan. Hamar urteko ibilbidearen ondoren Vendettak "Agur Kontzertua" eginen du datorren ostiralean, abenduaren 28an, Hatortxu Rockeko karpan. Momentu gorenean esanen diote agur Vendettari, Pello Reparaz eta Luisillo Kalandraka taldeko kide sakandarren hitzetan. Vendetta gehiagorik ez da oraingoan izanen

lariak gelditu zenean, Javiero eta biok zerbaitekin jarraitu behar genuela erabaki genuen. Javierok ordenagailuan hainbat abesti zituen eta inguruan zegoen jendea proiektuan parte hartzeko deitu genuen. Azkenean Pello erori zen ondoan zegoelako. Eta horrela hasi zen kontua. Ezin genuen ezer egin gabe egon. **Horrelako oihartzuna edo ospea izatea espero zenuten?**

P. Taldea hasi zenean ez neukan perspektiba handirik. Luisillok gehiago izanen zuen ni oso gazte hasi nintzelako, 17 urte nituen, eta egiten nuen hauek esaten zutena. Gerora beste izaera bat eta beste nortasun bat garatu nuen. Nik neuk taldearen barrutik ikusi dut zein izan den taldearen bilakaera. 17 urterekin gauza asko espero dituzu eta amets asko dituzu. Modu batera edo bestera bazen ametsetako bat. Baina espero ez, ez nuelako



EGOKI
VENTANAS PVC LEIHOAK

www.ventanasegoki.com

KALITATEA - AURREZKIA - EROSOTASUNA

egoki@ventanasegoki.com

948 563 253 Arkinoturri Industrialdea · Olazti ERAKUSKETA: Olite kalea 16 · Iruñea



KOLOREA GEHIAGO ETA HOBE

fundamentuzko irizpiderik. Baina egia da urteekin harritu edo sorpresaz hartu nauela guzti honek. Azken urteetan, gehien bat, ikaragarritzko bilakaera potentia hartu du proiektuak. Eta opari bat izan da, esperientzia ahaztezina.

L. Musika talde bat sortzen duzunean gauzak kontatzeko go-goengatik sortzen duzu. Zure mezua jendearengana iristeko desira horrengatik. Kontatzeko nahi hori duzulako, eta feedback-a egotea nahi duzu. Adierazteko eta gauzak kontatzeko modu bat da. Hori da musikak duena. Ez duzu pentsatzen noraino iritsi nahi duzun. Bestela, ez bazara iristen, zer? Ez du zentzurik, esaterako, Viñarocken jotzeko talde bat sortzea. Gustura zauden talde batean jo behar duzu. Lehenengo aldiz baxu bat hartu nuenean ez nuen espero, inolaz ere ez, baxuarekin dirua irabaziko nuenik. Eta 30 urte daramat.

Nola definitzen duzue Vendetta?

P. Vendettak bilakaera estilistikoa izan duen arren, jatorri jamaikarreko estiloak izan dira proiektuaren ardatz. Hau da, ska, rocksteady eta reggae estiloak. Gehien bat ska izan da oinarria eta abiadura aldetik agian rocksteady pixka bat ere egon da, baina disko bakoitzak hainbat estiloen elikadura jaso du. Beti egin izan dugu nahi izan duguna. Batzuetan disko batetik bestera asko aldatzen zen, eta azken disko honetan hiru estilo horietara hurbildu

gara. Bilakaera nahiko xelebrea izan du taldeak.

Nolako aldaketak izan dira?

L. Estilo bat beste batekin uzartzen dugu, ez gara inoiz izan reggae edo ska purua. Ska izan da bidea eman diguna nahi genuen beste erritmo bat jotzera. Dantza egiteko eta ondo pasatzeko aukera ematen ziguna. Helburua da jendea dibertitzea eta hankak lurrean izan eta burua argi. Kontzientzia sortzea, azken finean. Estilo guztiak baliagarriak dira nahi duzun hori adierazteko. Beraz, estilo bakoitzarekin banda ezberdin bat sortzen da. Batek abesten duenean banda bat da, beste batek abesten badu banda guztiz desberdin egin dezake. Taldea aberasten zuten gauzak dira. Esperientziak gehitzen joan gara. Adibidez, landa etxe batera joaten ginen diskoak prestatzera eta hor egiten ginituen abestiak gure kabuz. Bapatean funky zati bat aterazen, eta funky abesti bat egin genuen. Nola agertu zen funkya? Arratsalde batean Pello baterian eseri zen eta ni baxuarekin nengoen eta akorde batzuk egiten hasi ginen. Akorde horiek abesti bat bihurtu ziren. Inork ez zuen pentsatu disko horretan funkya erabiliko genuenik. Zorionez, bizitzak harritzen zaitu eta espero ez dituzun gauzak agertzen dira.

Egindakoarekin pozik zaudete.

P. Bai, oso. Nire bizitzako esperientzia izan da eta hamar urte hauetan polita izan da bizitako guztia. Eta oso harro nago egin ditugun gauzekin. Baita egin ditugun akatsekin ere. Akatsak beti egiten dira eta hauetatik ere ikasi behar da.

L. Jendearen maitasuna gehien sentitu dudun taldea izan da. Besteak nazioartekoagoak ziren eta agian horrengatik. Skalariak, esaterako, Suizara joaten ginen eta izenez agurtzen zidaten. Gero Zumarragatik joaten nintzen eta ez zidan inork ezagutzen. Gertutasun hori faltan botatzen nuen. Orain gertatu da nik faltan botatzen nuen hori. Eta bete da modu ikaragarri batean, gainera. Gustatzen zait



Luisillo Kalandraka Vendetta taldearen baxu-jolea eta ahotsa. GUILLERMO URKJO

kalera ateratzea eta jendeak nirekin hitz egitea.

Zaleen artean adin tarte handia duzue.

P. Bai. Nik 17 urte nituen Vendetta hasi zenean eta orain 27 urte ditut. Beraz, gurekin hasi zirenak eta gero jarraitu ez zutenak, gurekin hasi zirenak eta jarraitu zutenak eta Vendettaren alboan gelditu direnak, eta ez zirenak gurekin hasi baina beste diskoen bilakaerarekin hurbildu direnak ere daude. Familia handia osatu dugu eta familia oso zabala da. Urte hauetan zehar sortu dugun belaunaldi ezberdinen arteko proiektu bat da. Gaztetxo gaztetxoetatik, Vendetta azken diskoarekin jarraitzen hasi zirenak, hasieratik dauden horietara. Adin tarte handia eta

aberatsa hartzen dugu. Eta hori ere polita da.

Musikaren bilakaeran, zaleek zerikusirik izan dute?

P. Vendettak nahiko bilakaera independentea egiten saiatu da, baina bai izan dugu eragina. Nik pertsonalki nahita edo ez, normalean ez dut nahi izan, baina onartu beharra dut kanpoko faktoreek eragina izan dutela. Horren aurka borrokatzen saiatu naiz, batzuetan irabazi dut eta bestetan galdu. Normalean beti saiatu izan gara independentziarekin sortzen, eta egia kanpoan gauza asko gertatu direla eta batzuetan oso zaila izan dela.

Zein une geldituko izanen duzue beti gogoan?

L. Beti berdina esaten dut, astuna izan naiteke, baina Saha-

rara joan ginen eta koltxoi batean etzanda zegoen gizon tetrapleji-ko bati abesti bat jo genion. Paradoxa bat zen, gizonak Espainiako ejerzitoarekin borrokatu zuelako eta kolonia izateari utzi zuenean txakurrak bezala botata utzi zutelako. Ospitalean medikurik ez dute, eta zaintzaz familia arduratu behar da. Saharan jende guzti horren aurrean jotzeko aukera izan genuen. Nik baxua jotzen dut eta elektrizitate behar dut jotzeko, baina bertan ez neukan baliabiderik eta berdin zitzaidan gitarra bat hartzea, danbor bat... Zerbait egingo nuen. Irribarre bat ateratzen genien eta asko disfrutatu zuten. Ekipo handirik gabe ezta masa handirik gabe ere. Gauza txiki horiek dira betetzen zaituztenak. Jendeari aurpegira begiratzen diozunean. Bandarako eta bandako kide guztietarako bidai hori ahaztezina izan zen. Ez genuen bertakoa benetan ezagutzen.

P. Begitara begirara jo genion eta aurretik azaldu genion zer esan nahi zuen abestiak. Abestia jo genuenean ikusi genuen gizonaren aurpegian malko bat zegoela. Niretako une hori garrantzitsuenetarikoa izan zen. Ezin genuen abestiarekin jarraitu. Bukatu, bukatu genuen, baina une horrek betirako markatzen zaitu. Eta gero abesti hori ateratu berri hemen Arbizun, nire herrian, lehenengo aldiz jo nuenean ere oso berezia izan zen. **Taldearen eta zaleen arteko gertutasun hori sentitzea berezia izan da.**

L. Nik garrantzia ematen diot horri. Inork ez dezala pentsa ni bera baino gehiago naizenik, edo desberdinak garenik. Dударik ez izateko gai honetan. Mintzen nauen gauzak dira. Gauzak usteltzen ari dira eta usteltzen ari direla esan behar duen pertsona hori ez zaio alabatu behar; dena usteltzen ari delako. Pertsonen artean ez dago berdintasunik. Musikaria naiz. Egin dezaket abesti bat ilea lazten zaituena, baina zuk idatzi dezakezu artikulu bat niretako ere berezia dena. Baina hori beste-rik ez da. Berdintasuna. Beste-

"VENDETTAREKIN HEZI NAIZ. NIRE BIZITZAKO ESPERIENTZIA IZAN DA"

PELLO REPARAZ

"JENDEAREN MAITASUNA GEHIEN SENTITU DUDAN TALDEA IZAN DA"
LUISILLO KALANDRAKA



la onartu ezin diren klaseak sortzen ari gara.

Abenduaren 28an Agur kontzertua izanen da. Zer prestatzen ari zarete?

L. Kontzertu luzea egin behar dugu. Vendettaren historiaren kontzertu luzeena izango da, eta nik uste taldeko musikarien kontzertu luzeena izango dela ere. Orain arte egin duguna eta atzean utzi dugunaren errepasoa egingo dugu. Eta saiatuko gara hainbat abesti modu desberdinean jotzen. Harizko hirukote batekin edo haizezko instrumentuak laguntzen egongo dira, koroak egiten ere laguntza izango dugu... Baina ez dira kolaboratzaile ospetsuak izango. Abesti horrek zer behar duen begiratura hartuko ditugu. Abestiak beste modu batera jantzi eta orain arte egin ez dugun kontzertua egin.

P. Vendetta izango da. Ez Vendetta eta lagunak.

Kontziente zarete Vendetta amaitzen dela?

L. Baietz esango dizut, baina gitarrarekin azken akordeak egiten ditudanean beste sentsazio batzuk izango ditut. Momentuz nahiko lasai nago, egia esan. Kontzertuaren aurreko bi egunetan tripetan zizareak hasiko dira eta jasanezina egongo naiz.

P. Nik uste ez garela erabat kontziente izango denbora tarte bat pasatzen den arte. Martxoan, esaterako, pentsatuko dugu birarik ez dugula eta apirilean ez garela areto batetik bestera joan behar. Ostiralak eta larunbatak libre izango ditugu, eta hori bai kontziente izaten lagunduko digula. Poteatzera atera ahal izatea eta gauza horiek gertatzen direnean esango dizut. Ez dakit teknikoki eta musikalki zer suposa dezakeen, baina egia da oraindik ez naizela erabat kontziente. Urduri bai. Oso urduri nago kontzertuarekin.

L. Sendatu ezin den gaixotasun bat bezala da. Badakite hilko dela eta hobe hartzen dela esaten dute. Baina gertatzen denean... Beraz, 28ra arte bizitzak jarraitzen du betiko moduan. Aurrera egin nahi duzu, baina oraindik ez duzu denbora libre asko horri eskaini behar diozulako. Beraz,



Pello Reparaz Vendetta taldeko tronboi-jolea eta ahotsa. GUILLERMO URKJO

konzertuaren hurrengo egunean beste modu batera ikusiko dugu, hori bai. A-rekin bukatu dugu, B-rekin has gaitezke.

Behin betiko agurra da.

Bai.

P. Vendetta bukatu da eta bila-kaera potente bat izateko aukera bukatu zaigu. Lagun moduan utzi dugu. Beraz, gerta liteke hemendik hainbat urtetara berriz elkartzea kontzerturen bat egitera. Baina ez dugu buruan, ez dugu pentsatu. Baina ezetz ezta ere ez dugu esango.

Etorikizunerako zer?

L. Jendea istoriotan sartzen ari da. Ni nahiko lasai nago, baina jendeak gauzak egiten ditu. Vendettarekin batera hainbat proiektu egin izan dira, baina makinak dena hartzen zuen, ezetz zirudien arren. Ez da berdina film bate-

daude, ideiak ere. Azken egunera arte itxoin beharko dugu. **Beraz, denbora gehiago izango duzue zuen proiektu pertsonaletarako.**

P. Denbora aldetik Vendettak kriston zatia hartzen du. Denbora kentzen dizu horrelako proiektuak egin ahal izateko. Beraz, Vendetta alboan ez izatea proiektu txiki horiek garatzeko denbora pila bat ematen dizu. Proiektu berri bat hasteko aukera ematen dizu ere, bai denbora aldetik bai erantzukizun aldetik. Nor bere proiektuak sortuz joan da. Esaterako, Javierok bere anaiarekin taldea berria plazaratu du eta kontzertuak ematen dituzte. Rubenek eta Enrikkok Modu operandi talde sortu dute ere. Eta, nola ez, beste hainbat proiektu jaiozen ari dira. Baina, momentuz, Vendettaren amaierarekin zentratuta gaude.

L. Guzti honen yonkiak gara. Joan gaitezke asteburu bat Pirinioetara, hurrengo ere joango gara, baina hirugarrenean agertoki bat beharko dut.

Zer eman dizue Vendettak?

L. Niretako Vendetta seme-alaba bat izatea bezala izan da. Hazitzen ikusi dut eta nahi izan zuena egin du. Eta orain beste bat izan beharko dut. Hain handia egin da... Nik ez ditut sare sozialak kontrolatzen, baina berak bai. Hori da sentsazioa. Pellok baino 20 urte gehiago ditut, eta ni kanpoan asko ibiltzen zen talde batetik nentorre eta beste sentsazio bat neukan. Talde bat hasieratik egiteko gogoak neuzkan. Pelloarekin eta topatu ginen eta, bueno, Pello taldearekin batera hezi da, eta hezitzen ikusi dugu.

P. Nik beste era batera sentitu dut. Ni Vendettaren markoan hezi naiz. Musikari buruz eta musikaren industriari buruz dakidan guztia Vendettan ikasi dut eta Vendettak irakatsi dit. Talde honetan hazi naiz eta nire gazteria Vendettan pasa dut. Oraindik gazte naiz. Baina orain arte bizi izan dudana guztia Vendettaren prismatik egin dut eta orain sentitzen dut Vendetta asko handitu dela eta ni ere asko han-

ditu naizela. Sentsazioa ni neu independizatzea nihoala zen.

Abesti gogokoena?

L. Zaila. *Madre* abestiarekin gelditzen aniz. Ilea lastu egiten zait. Beste batzuk gustatzen zaizkit, baina goian dagoen zerbait da. Gainera, harrapatu ninduen momentu batean entzuten nuenean... eta markatuta gelditu zait. Seme batek amari abesteko modu hori...

P. Nik asko idatzi ditut eta orduan oso zaila da zuk egin duzunean aukeratzea. Abestiak argia ikusten duenean, zureak dira, noski, baina beste modu batera ikusten dituzu. Abesti hori eraldatzen da datorkizun feed-back-arekin. Abestien esanahia aldatzen da. Orduan, erantzuna ikaragarria izan da. Herrian, Arbizun, adibidez *Ekainak 24* abestia. Esanahiagatik argitaratzeko unea oso polita izan zen. Nola ez *Begitara begira* abestiak taldearen ibilbidean eragin ikaragarria izan duen abestia da. Ni abestigile bilakatzeko horretan bultzadarik potentea izan da, motibaziorik handiena zer egin nezakeen ikusteko eta nik idatziko zerbaitek zer lor zezakeen. Eta, adibidez, Vendettaren agur honi soinu banda jartzeko funtzioa bete duen eta oso berezi bihurtu den *Reggaean egan* abestia.

Orain bai, amaiera.

L. Liluratuta gaude orokorrean jasotako maitasunagatik. Oso harro gaude momentu on batean utzi dugulako eta hor betirako geldituko delako. Ez dda dena desitxuratzen den talde haietako batean bihurtu. Zerbaiten alde lan handia egin dugu, eta hor geldituko da betirako.

P. Ni ere oso pozik nago azken garai honetan jaso dugun harreko horrekin eta Euskal Herrian eta kanpoan izan dugun zaleekiko harremana. Baina niretako oso berezia izan da azken gira honetan Altsasun egin genuen azken kontzertu hori. Sakanan bertan harrera hori egonkortu dela ikustea oso polita izan da. Sakanarekin despeditzeko modu ederra izan zen. Eta oso pozik eta eskertuak gaude.

"VENDETTA NIRE SEME-ALABA BEZALA IZAN DA. HANDITZEN IKUSI DUT"
LUISILLO KALANDRAKA

"ALTSASUKO KONTZERTUA BEREZIA IZAN ZEN, SAKANAKO DESPEDIDA IZAN ZEN"
PELLO REPARAZ



ASTEKOA

ZOILA BERAŠTEGI MARIÑELARENA

Aristitik: hara!

Askotan, baina, ez zait erraza suertatzen jakitea 1550 karaktere preziatu hauek zeri edo zeini eskaini. Horregatik itxaron egiten dut; barruko idazteko ar hau zerk edo nork piztuko zain. Batzuetan berri bat da, edo barnehausnarketa bat; behaketa, oroi-

tzapen, komentario, kartel, irudi... edozer bilaka liteke barruko ideiak dantzan jartzeko beharrezko estimulu. Eta heltzen da... normalean garaiz, beste batzuetan egun pare bateko atzerapenarekin... baina beti iristen da. Akaso azkeneraino mantentzen dudalako

halako konfiantza itsu bat. Itxaroten jakin behar... besterik ez.

Oraingo honetan irrati elkarrrizketa bat izan da. Arantxa Iturbek ohikoa duen ahots leun eta galdera zintzo bezain sakonei erantzunez aritu zen Pako Aristi. Eta horretan, etiketak aipatu zituen idazleak; etiketak eta botere harremanak. Eta hortxe piztu zitzaidan ustekabeen barne-arra, Arbizutik Iruñera bidetan, gauerditik gertu, semea kotxean lo nekarrela.

Harreman batean, etiketa jartzen duena da boterea duena. Botere-dunak du hori egiteko ahalmena. Hetero-patriarkatuak “feminizidak” etiketa jarri die feministei; “putak” beren gorputza modu askean bizi duten emakumeei; “marikoiak eta bollarak” beren desio sexuala araututakotik kanpo gozatzen dutenei; “terroristak” euskaldunei; “hippiak” naturaren defentsan diharduten aktibistei, eta abar luze bat. Desaktibaziorako lehen urrats bat omen. Inork

ez du etiketatua izan nahi, «normala» ez den beste ezertan. Baina etiketak nor-bere egiteak etiketa berari indarra galarazten diola jakin badakite marika, bollera eta putek. Boterea 0, Besteok 1.

Baina tamalez botere harremanak ez dira soilik Boterea eta jendartearen artekoak. “Gaur nik, bihar niri” espiral itsuan gabiltza dantzan, atzo jarri zidaten etiketa bihar nori jarriko diodan erabakitzen; boterea alboan betikotu nahian edo... nork daki!

HARA ZER DIEN

Hau da erretzeari uzten diozunean gertatzen dena

SAKANAKO PREBENTZIO ZERBITZUAK

Erretzea da munduan ekidin daitekeen artean heriotzaren arrazoi nagusienetako bat. Erretzeari uztean onurak berehalakoak dira, jende gehienak sinesten duena baino azkarragoak.

Honako hauek izango dira erretzeari utzi eta gure gorputzean sentituko duzuna, kronologikoki azalduta:

-Erretzeari utzi eta ordu bate-

ra: azken zigarroa erre eta 20 minututara bihotzaren erritmoa jaisten da eta normaltasunera hurbiltzen da, tentsioa jaisten hasten da eta odolaren zirkulazioa arintzen hasten da.

-12 ordu ondoren: azken zigarroa erre eta 12 ordutara gure gorputzak daukan monoxido karbonikoaren kantitatea jaisten da eta oxigenoaren kopurua maila normaletara hurbiltzen hasten da.

-Egun bat pasa ondoren: bihotzekoa jasateko arriskua gutxitzen hasten da. Oxigeno maila ere handiagoa izango da eta ariketa fisikoa egiteko garaian nabarmena izango da.

-Hiru egun ondoren: usaimena garatzen hasiko da eta usainak eta zapoak biziago sentituko ditugu. Gorputzean dagoen nikotina bukatzen ari da eta pertsona askok sentitu dezakete buruko mina, umore txarra... Abinentzia sentsazioa sentitu daiteke.

-Hilabetera: biriken funtzionamendua hobetzen hasten da, eztul gutxiago nabarituko dute

eta arnasa hartzeko erraztasun handiagoa ere bai. Ariketa fisikoa egiteko erraztasuna eta erresistentzia handiagoa nabarituko da.

-Bederatzi hilabetera: birikak nabarmen hobeki daude. Mukiak eta infekzioak ekiditeko erabiltzen ditugun zilioak sendatu egin dira.

-Urtebetera: erretzeari utzi eta urtebetera bihotzeko gaixotasunak izateko arriskua erdira jaisten da. Arrisku hau jaisten jarraituko da.

-Bost urtetara: zigarroen toxinen eraginez zainak eta arteriak ixten dira. 5 urte ondoren zabaltzen hasten dira eta horrek

istripu zerebro-baskularraren arriskua murriztea dakar.

-Hamar urtetara: denbora honen ondoren biriketako minbizia izan eta honen ondorioz hiltzearen arriskua erdira jaisten da. Eta horrekin ahoko, eztarriko edota pankreaseko minbiziarena ere.

-Hamabost urtetara: zenbait gaixotasun kroniko edota minbizia izateko arriskua ez erretzaile batena bezalakoa izango da.

-20 urte ondoren: erretzeari lotutako heriotzaren arrazoiak inoiz erre ez duen batena bezalakoa da dagoeneko.

GUTUNA

Hiru aurpegi

ANGERU MIKEO

Duela bi asteburu zinemara joanda, Janar Panahi-k zuzendutako *Hiru aurpegi* pelikula aukeratu genuen. Aktore izan nahi duen neska ausart batek, landa eremu idorreko gizarte txiro eta itogarri batetik ihes egiteko, bere burua hiltzearen amarrua mugikorraren bideoaz

grabaturik, ospe handiko aktore andre bati ailegarazten dio, lagundu diezaion. Filmean azaltzen den herrixka benetan xumea da, etxe zaharkituak, zoladurarik gabeko kaleak, jende txiroa eta, andrezkoen gainetik, ondra eta ohorea. Hala ere, telesailen bidez, beste bizimodu liluragarriagoaren irudia etenik gabe sartzen zitzaien etxeetako egongela apaletara. Zuzendariak argazki hori baliatzen du Iran-go sistema soziopolitikoaren

eredu patriarkalari, emakumee-kiko jazarpen eta askatasun faltari eta txirotasunari, ageriko kritikarik egin gabe, kritika egiteko.

Metafora moduan erabilia, filmak aurrera egin ahala, ekialde hurbileko paisaia idor horietako irudiekin batera gogoak hegan egiten zidan beste leku batzuetara, oro har Afrikako migratzaileek atzean utziak izanzen dituzten paisaietara. Haiek ere, beren herrialdeetako txiro-

tasunetik, bortizkeriatik eta jazarpenetik ihes egitea dute helburu, jakin badakitelako beste lurralde batzuetan aukera hobeak izan ditzaketela. Zeren eta, bizitza hobetzeko kontzientzia hartua duenak galtzeko gutxi duenean, asko arriskatzeko prest izaten baita. Halaxe egin izan dute gure familia arteko migratzaileek ere hamar-kada luzeetan.

Horregatik, etsigarria da Europako estatuek darabilten azo-

ka, migratzaileentzako merkaderia gisa trukeko kupo eta kuota. Lotsaren harresiak harrokeriaz eraikitzea dute xede bakarra, deserriak eta pariak gaizkile bihurtuta. Batzuek epe laburrean Marte planeta pertonekin kolonizatzea dute helburu, beste batzuek harresien gainetik bizitza duina izateko ametsa aia-duru.

GUTUNAK: gutunak@guaixe.eus

guaixe
SAKANAKO ASTEKARIA

Erredakzio burua:
Alfredo Alvaro Igoa
guaixe@guaixe.eus

Erredakzioa:
Maider Betelu Ganboa
kirolak@guaixe.eus
eta Erkuden Ruiz Barroso
kultura@guaixe.eus

Maketatzailea:
Irene Trecet Obeso
maketazioa@guaixe.eus

Publizitatea:
Maria Saez de Albeniz Bregaña
publizitatea@guaixe.eus
eta Eneida Carreño Mundiñano
publi@guaixe.eus

ARGITARATZAILEA:
Guaixe Fundazioa.
Foru plaza 23-1.
31800 Altasu
948 564 275
948 562 107 (Faxa)
618 882 675

www.guaixe.eus

Koordinatzailea:
Goizeder Anton Iturralde
fundazioa@guaixe.eus

Diseinu zerbitzua:
GK, Olatz Aldasoro Martinez de Ilardua
gk@gkomunikazioa.eus

Administrazioa:
Gema Lakuntza Lopez
admin@guaixe.eus

Zuzentzailea:
Felix Alzelai Iriarte

Lege gordailua: NA-633/1995
Tirada: 3.200

LAGUNTZAILEAK

Mank
s a k a n a



Nafarroako Gobernua
Gobierno de Navarra

BAZKIDEAK



16 herritan 24 lan egiteko 1,5 milioi euro eman ditu gobernuak

Nafarroako Gobernuak finantza aldetik jasagarriak diren 35,5 milioi euroko diru sailetik etorriko dira

SAKANA
Nafarroako Parlamentuak oniritzia eman zion foru lege bati pasa den ostegunean. Haren aldeko botoa eman zuten UPNk, Geroa Baik, EH Bilduk, Ahal Duguk, PSNk, PPNk eta I-Ek.

Orain Bai taldeko lau parlamentariak kontrako botoa eman zuten.
Haren bidez Nafarroako Gobernuak 35.546.085 euroko kreditu berezi bat izanen du finantza ikuspegitik jasagarriak

diren inbertsioak egiteko. Las-tailan onartutako foru legea 113 milioi euroko poltsa zen. Foru administrazioak 35 milioi horiekin Toki Inbertsioen Planean eta Banda Zabala Plan Zuzendarian jasotako lanak bulkatuko ditu. Gobernuak Sakanako 24 lan diruz lagunduko ditu. Ibarreko herrietan egingen diren lan horiek 1.568.673,5 euroko inbertsioa eskatzen dituzte. Nafarroako Gobernuaren behin behineko ekarpena 1.020.847,14 eurokoa izanen da, % 65,07.

Finantza-arloan arduratsuak diren inbertsioak Sakanan				
Toki erakundea	Herria	Lana	Inbertsioa	Ekarpena
Arakilgo Udala	Aizkorbe	San Andres kaleko hornidura, saneamendu eta euri-uren sareak berritzea	95.899,67	67.129,77
Arakilgo Udala	Aizkorbe	Argiteria publikoa berritzea	8.366,40	5.019,84
Arakilgo Udala	Aizkorbe	San Andres kaleko zoladura berria	79.694,17	67.740,04
Arakilgo Udala	Hiriberri Arakil	Ur-hornidura sareak berritzea	58.923,65	41.246,55
Arakilgo Udala	Egiarreta	San Anton kaleko hornidura, saneamendu eta euri-uren sareak berritzea	89.442,26	62.609,58
Arakilgo Udala	Egiarreta	San Anton kaleko zorua berritzea	113.209,32	96.227,92
Arakilgo Udala	Izurdiaga	Geltoki auzoko saneamendu sareak	25.470,95	17.829,66
Arakilgo Udala	Izurdiaga	Geltoki auzoko zorua berritzea	20.626,07	17.532,16
Irurtzungo Udala	Irurtzun	Udal kiroledegia iparraldeko fatxada estaltzea	31.585,44	22.109,81
Errozko Kontzejua	Errotz	Argiteria publikoa berritzea	17.780,00	10.668,00
Izurdiagako Kontzejua	Izurdiaga	Argiteria publikoa berritzea	11.401,60	6.840,96
Etxarrengo Kontzejua	Etxarren	Argiteria publikoa berritzea	23.811,20	14.286,72
Satrutegiko Kontzejua	Satrutegi	Argiteria publikoa berritzea	11.670,40	7.002,24
Lakuntzako Udala	Lakuntza	Argiteria publikoaren instalazioa berritzea	125.342,67	75.205,60
Lizarragabengoako Kontzejua	Lizarragabengoa	Argiteria publikoa berritzea	14.451,70	8.671,02
Iturmendiko Udala	Iturmendi	Argiteria publikoa berritzea, 4. fasea	35.704,80	21.422,88
Urdiaingo Udala	Urdiain	Kaluxa kaleko euri urak	41.610,18	35.368,65
Urdiaingo Udala	Urdiain	Kaluxa kaleko zorua berritzea	176.491,66	150.017,91
Sakanako Mankomunitatea	Urdiain	Kaluxa kaleko hornidura, saneamendu eta euri-uren sareak berritzea	65.729,09	46.010,36
Altsasuko Udala	Altsasu	Udaletxearen erantziaren inguratzaile termikoa, irisgarritasuna eta ebakuazioa hobetzea	182.941,09	12.649,55
Olatzagutiko Udala	Olatzagutia	Zirkunbalazio kaleko euri-uren sareak	76.622,69	65.129,29
Olatzagutiko Udala	Olatzagutia	Argiteria publikoa berritzea	200.211,08	120.126,65
Ziordiko Udala	Ziordia	Dona Maria kaleko euri-uren sareak	45.471,94	38.651,15
Ziordiko Udala	Ziordia	Igerilekuen atzeko aldeko saneamendu sareak	16.215,47	11.350,83
			Guztira	1.568.673,50 1.020.847,14



Izurdiagako tren geltokiaren ingurua.

Izurdiagako tren geltoki inguruan lanak egingen dira

Arakilgo Udalak Izurdiagako tren-geltoki inguruko kaleko sareak eta zoladura berritu nahi ditu. Alde batetik, ur-beltzak jasotzen dituen sareak ez du erregistro-kutxatilarik. Sarean butxadurak izaten badira, erregistro-kutxatilarik ez egoteak mantenu-lanak zaildu egiten ditu. Inguruan ere kontrol-putzurik ere ez dago. Hori eragozteko sareak berritu eta gutxienez 50 metroko erregistro-kutxatila bat jarriko da.

Bestetik, ez dago euri urak jasotzen duen sarerik. Etxe batzuetako zorrotonek lurpean bukatzen dute eta udalean pentsatzen dute ur-beltzen sareari lotuta egonen direla, baina horretarako erregistro-kutxatilarik ere ez dago. Beraz, euri-urak jasoko dituen sare berria egingen da eta erregistro-kutxatila jarriko dira. Gainera, asfalto egoera txarrean dago eta porlanezko zoruaz ordezkatuko da. Lanek 70.338,85 euroko aurrekontua dute.



Hiriberriren ikuspegia Aralartik.

Hiriberriko ur-ihesak saihesteko lanak egingen ditu udalak

Arakilgo Udalak Hiriberri Arakilen dauden ur ihesak desagerarazteko lanak egingen ditu. Zehazki, Sakanako Mankomunitatearen uraren goi-hornidura sareko hartunetik herrira bitarteko hoditeria berrituko du udalak. 500 bat metroko luzeran egingen dira lan horiek. Baina lanetatik aparte geldituko dira Sakanako Autobiaren (A-10) eta trenbidearen azpian dauden hodi zatiak. Ordezkatuko den hoditeria 40 bat urte ditu. Herriko hornidura sareak, berriz, 2008an berritu zuten.

Urdalurko uharkan jasotako ura banatzen duten sareko edaten dute Hiriberri Arakilen. Sakanako Mankomunitateak 58.067 m³-ko hornidura egiten du urteko, baina udalak herri-tarrei soilik 10.961 m³ kobratzen die. Beraz, gainontzeko 47.116 m³-koak galdu egiten dira eta horrek urtero 7.345,38 euroko kostua du. Arakilgo Udalak egingako lanen deialdiak 92.281 euroko aurrekontua du.



107.3 FM

beleixe

guaixe.eus-en ON LINE

Denboraldi berria

Saioa 10:00 – 12:00

10:00 Egun on, prentsa eta eguraldia

10:15 Eguneako agenda

10:20 Albistegia

10:45 Eguneako elkarrizketak

11:15 Sarea: Esan Erran eta Aralar irratiko esatariekin

11:55 Saioaren bukaera

Genero indarkeriaren kontra egiteko udalendako laguntzak

Gobernu ordezkariak Nafarroan banatuko dituen 431.951 euroetatik 13.968 euro ibarrera etorriko dira

SAKANA

Sakanako 15 udalek genero indarkeriari aurre egiteko 13.968 euro jasoko dituzte. Espainiako Gobernuak emandako dirua da, genero indarkeriaren kontrako estatu paktutik heldu dena. Aipatu hitzarmen horretan jasotako neurriak herrietan gartzera bideratu beharko dute udalek diru hori eta horretarako heldu den urteko garagartza-roaren 30era arteko epea izanen dute.

Udalek diru-laguntzekin, esaterako, honakoak egiteko aukera izanen dute: emakumezkoen kontrako edozein indarkeria motaren inguruko sentsibilizazioarako eta prebentzioarako kanpainak, helburu bera duten informazio materialak sortzea, herrian babes unitateak sustatzea edo kooperazio edo koordinazio tresnak sortzea, biktimendako udal informazio zerbitzuak indartzea, herriko profesionalak berdintasunari eta emakumeen kontrako indarkeriari buruzko informazio espezializatua eta jarraitua ematea, VioGen sistemaren barruan dauden udaltzaingoak indartzea edo familia topaketako puntuak babestea.

Sexu indarkeriaren kontrako udalendako estatuko gobernaren laguntzak

Herria	Kopurua
Arakil	859,46
Irurtzun	1.081,94
Irañeta	720,32
Uharte Arakil	838,04
Arruazu	707,18
Lakuntza	916,16
Arbizu	890,42
Ergoiena	760,82
Etxarri A.	1.132,52
Bakaiku	751,10
Iturmendi	760,64
Urdiain	809,78
Altsasu	2.024,42
Olatzagutia	962,24
Ziordia	753,26
Guztira:	13.968,30



SGA

SPErako ekarpenak jasotzen

2014-2020 Sakanako Plan Estrategikoaren inguruan sakandarrek zien balorazio duten jakiteko hiru jardunaldi ireki egin dira azken egunetan. Aurrena Irurtzunen izan zen ostegunean. Bigarrena Etxarri Aranatzan eta, atzena, Altsasun herenegun. Orain arte egindako bidea aztertu eta azken bi urteetarako egokitzapen posibleak zehazteko ideiak jaso dira.



Irurtzongo osasun etxea. ARTXIBOA

Euskara eskakizuna ezarri diete 3 osasun etxeetako 5 lanposturi

Irurtzongo, Etxarri Aranazko eta Altsasuko bost funtzionario lanpostu betetzeko B2 maila eskatzen da

SAKANA

Nafarroako Gobernuak lan talde organikoan 55 lanposturen hizkuntza eskakizuna zehaztu du eta, horrela, euskara administrazioan arautzen duen foru dekretua aplikatzen hasi da. Lanpostu elebidun berri gehienak lehendik lan-taldean zeuden, baina gobernuak orain hizkuntza eskakizuna aldatu die. Osasunbidean egin ditu gobernuak aldaketa gehien eta horietako batzuk Sakanan eragina dute. Hala, Etxarri Aranazko eta Altsasuko osasun etxeetan ariko diren mediku bana euskara jakin beharko dute. Eta Irurtzongo eta Altsasuko osasun etxeetan ariko diren beste bi erizainek ere elebidunak izan beharko dute. Altsasuko osasun etxeko larrialdi zerbitzuan ariko den mediku baten posturako ere euskara ezagutza eskatuko dute. Bost kasuetan euskarazko B2 jakite-maila eskatzen zaie.

Herritarren % 70 baino gehiago euskara ezagutzen duten herriak biltzen dituen Udalerrri Euskaldunen Mankomunitateak, UEMAK, behin baino gehiagotan salatu du herrietako osasun etxeetan euskararik ez dakiten medikuak eta pediatrik daudela. Eta bereziki arazoa emakumeen arretarako zentroetan, emaginekin eta ginekologiarekin dagoela nabarmendu du. UEMAK herritar euskaldunen hizkuntza eskubideak bermatzeko eta errespetatzeko exijitu du.

Horregatik, esaterako, Etxarri Aranazko osasun etxeko zerbi-

tzuak euskaraz jasotzeko eskubidea aldarrikatuz 592 sinadura jaso ziren 2015ean. Haiek Osasun eta Hezkuntza Departamentuetan, Nafarroako Arartekoan eta Hizkuntza Eskubideen Behatokia aurkeztu zituzten. Francisco Javier Eneriz Olaetxea arartekoak legeak herritarrei medikuekin euskaraz komunikatzeko eskubide hori aitortzen diela ebatzi zuen.

Bitartean Nafarroako Alderdi Popularrak foru administrazioak "isilka eta azpikeriaz" egindako aldaketaren kontra egin du. Nafarroako PPko presidente Ana Beltranek "diskriminazioa" salatu zuen: "gaur egun postu horietan dauden behin-behineko langile elebazarrek lanpostua utzi beharko dute, euskaraz dakitenen mesedetan. Hori guztia estrategia bat da, administrazio publikoa euskaldunekin kolonizatzeke".



Hilaren 5ean elkartu ziren.

Ibarreko ordezkariak Elizalderekin elkartu ziren

Sakanako hainbat udaletako alkate eta kontzeju-buruak, udal-ordezkarik, Sakanako Mankomunitateko presidentea, Cederna-Garalur eta Sakanako Garapen Agentziako ordezkariak Isabel Elizalde Landa-Garapeneko, Ingurumeneko eta Toki Administrazioako kontseilari Isabel Elizalderekin eta bere lantaldearekin elkartu ziren Lakuntzan hilaren 5ean.

Topaketan Sakana eskualde bihurtzen duen Nafarroako Tokiko Administrazio Maparen Erreformaren berri eman zuen Elizalde, eta aurki Nafarroako Parlamentuan eztabaidatuko dutela jakinarazi zuen. Europako Nekazaritza Politika Bateria-tua erreformatzearen alde agertu zen, "lurraldean hobe integratutako sektorea izan dadin eta familia-ustategiak protagonista izan daitezela". Azkenik, Sakanak duen birziklatze maila goraipatu zuen Elizalde, bereziki materia organikoarena. % 54a birziklatzen dugu, 2020rako ezarritakoa betetzen du jada.

Aholkularitza
Juridiko
laborala

Aitziber
Andueza Larraza
Abokatu / Gizarte Graduatua

aitziberandueza.aholk@gmail.com
Arkuetabide 2 baxua
ETXARRI ARANATZ

653 863 289
848 412 926

Levi's®

avensio 1927

Altsasuko auziko helegiteak ilbeltzaren 14tik 16ra aztergai

Defentsek epaileak aldatzea eskatu zuten baina ez diete eskaera onartu eta 3.600 euroko isuna jarri diete

ALTSASU

Defentsak, fiskalak eta akusazio partikularra diren Covite eta AUGC elkarteek Altsasuko auziko epaiari helegiteak aurkeztu zizkieten. Horiek Espainiako Auzitegi Nazionalako apelazio aretoak aztertuko ditu ilbeltzaren 14tik 16ra. Jose Ramon Navarro (txostengilea izanen da), Enrique Lopez eta Eloy Velasco epaileak izanen dira epaimahaia osatuko dutenak. Auzipetutako 8 altsasuarrei 2 eta 10 urte arteko espetxe zigorrak jarri zizkien Espainiako Auzitegi Nazionalak

udaberri akaberan. Gaur egun 7 auzipetu Zaballako (Araba) espetxean daude preso. Adurrek, Jokinek eta Oihanek 768 egun egin dituzte preso eta Aratzek, Iñakik, Jon Anderrek eta Julenek, berriz, 198. Azken 4 horiek 2016ko udazkenean beste 37 egun preso egon ziren.

Epaile aldaketarik ez, isuna bai Auzipetuta dauden 8 altsasuarretatik 6k epaimahaia aldatzea eskatu zuten auzitegiko Gela Berezian. Hiru epaileetatik 2k Guardia Civilaren ohorezko

dominak jaso dituzte: Enrique Lopez eta Jose Ramon Navarro. Abokatuek helegitea aurkeztu eta epaimahaia aldatzeko eskatu zuten: “Guardia Civilaren kondekorazioa jasotzea epailetatik baztertzeko nahikoa ez dela esatean, aretoak berak aitoritu du bere neutraltasun falta, helegitearen argudioak aztertu aurretik haietako baten gaineko iritzia eman baitu”. Abokatuen ustez gertaerek lotura zuzena dute Guardia Civilarekin liskarrean kaltetuetako bi agenteak zirelako, Asociación Unificada de la Guardia Civil elkarteak akusazio partikular gisa ari delako eta Guardia Civilaren txostena terrorismo delitua egotzeko oinarria izan zelako.

Bestetik Eloy Velascok, akusazio partikularra den Coviteren kongresu batean parte hartu



Urrian Altsasun egindako ekitaldiko argazkia. ARTXIBOA

zuen joan den urteko lastailaren 23an. “ETAren estelan ideologizatutako gazteen inguruan” adierazpenak egin zituen. Iruñean martxoan emandako hitzaldi batean epailetaz hitz egin zuen eta Espainiako Auzi-

tegi Nazionalak terrorismoaz Nafarroako Lurralde Auzitegiak baino ezagutza handiagoa zuela esan zuen. Epaitegiak eskaera atzera bota du eta bakoitzari 600 euroko isuna jarri die tramitazioa luzatzeagatik.

Dona Maria kaleko lanak, eta beste txikiagoak Ziordian

Ziordiko Udalak aurten 347.000 euro kudeatuko ditu. Dona Maria kaleko goiko parteko lana da udal kontuetan aurreikusitako inbertsiorik handiena: 212.000 euro. Baina badira gehiago. Patxi Bengoetxea alkateak azaldu digunez, Eginorako bidea, Arbara, konpondu egin dute 5.000 euroekin. Uholdeen eraginez sortutako kalteak konpontzeko Nafarroako Gobernuaren diru-laguntza izan dute horretarako, 2.800 euro. Bestetik, herri-lurretako larre batean itxitura jarri da, eta horretarako 17.000 euro bideratu. Landa Garapen Departamentuak emandako 9.000 euroko diru-laguntzarekin egin da lan hori.

Azkenik, Bargan pago landarea ugari zegoen, oso itxia, eta bakandu egin da. Horretara 14.600 euro bideratu ditu Ziordiko Udalak, Nafarroako Gobernuaren 6.000 euroko diru-laguntzarekin. Atera den materiala egur gisa saldu da, udalarendako diru-sarrera bihurtuz. Ziordiko Udalaren beste diru sarrera bat Eginoko haiztaren azpian, harrobiaren mendebaldera dagoen Basoixiko pinudiko 3 baso aprobetxamendu saldu zituen udalak. 140.000 euroko balioa zuten baso aprobetxamenduak 162.000 eurotan saldu zituen udalak.



Pako harategiko txistorra hirugarrena Ordizian

Euskal Herriko Txistorra Lehaketako txapela Oñatiko Odriozola harategiak eskuratu zuen herenegun. Olatzagutiko Pako harategiko txistorrak 3. saria eskuratu zuen. Patxi Aldasorok egindako txistorra zen, eta bere aitak, Pakok, sari banaketan semea ordezkatu zuen. Halako sariak oihartzuna dutela eta salmentetan nabari dela aitortu digu. “Populartasun horregatik asko txistorra erostera joaten dira eta, bide batez, zerbait pikatzen dute. Sariengatik ez bultzatzen, herriez ez da inor gogoratzen”. Sariak lanerako motibagarri ere badirela esan digu.

Pakok gogorarazi digu aitarengandik ikasi zuela ofizioa, baita anaiek ere. Altsasun jarri zuen hark harategia eta han eskarmentua hartuta Olatzagutira egin zuen salto. Errege egunean 45 urte egingen ditu Pako harategiak zabalik. Patxi semeak hartu dio lekukoa. “Pixkanaka ikasi du, berak bakarrik, ikusten”, hala ziurtatu digu Pakok.

Gizarte-erantzukizunagatik lau enpresari aitortza

Sakanako lau enpresak eta erakundeek berrikuntza sozialarekiko konpromisoa egiaztatzen duen diploma bana jaso zuten asteartean. Guztiek ere InnovarSE metodologia ezarri dutelako. Sistema horrek Enpresen Gizarte Erantzukizuna pixkanaka-pixkanaka aplikatzea sustatzen du. Aitortza-diplomak jaso zuten Sakanako enpresak eta erakundeak honakoak dira: Industrias Barga SL (diagnosia), Cederna-Garalur (planak) eta La Burundesa SA (hobekuntza zikloa). Aipamen berezia jaso dutenen artean dago Lacturale (egiaztatze tresna), “bere ohiko jardunean gizartearen mesedeko estrategia horrekin loturiko tresnak edo esperientzia pilotuak abian jartzeagatik”.

InnovarSE gobernuak 2009an sortutako kudeaketa-sistema da eta iraunkortasuna etengabeko hobekuntza-prozesuaren barnean sistematikoki sartzea errazten duen tresna da. Enpresei laguntzen die erantzukizun sozialeko alderdiak beraiei epe ertain eta luzeko estrategien jasotzen, bai eta epe laburreko eguneroko lanean ere. Zehazki 10 alderdi lantzen dira enpresako 3 dimentsiotan: ekonomikoa, ingurumenekoa eta maila sozialekoa. 4 fase ditu: diagnostikoa, plana, memoria lantzea eta hobekuntza.



Hainbat lantegietako hauteskunde sindikalen emaitzak

LAB sindikatuak jakinarazi duenez, langileen ordezkariak aukeratzeko Sunsundegui enpresan egindako hauteskundetan boto gehien (82) lortu duen sindikatua izan da LAB. Enpresa batzordean 2 ordezkari izatetik 4 izatera pasa da sindikatu abertzalea. 70 botorekin 5 delegatu lortu ditu UGTk (2 espezialisten eta 3 kolegioan). ELAk 44 boto eskuratu ditu Sunsundegui hirugarren indarra da. Bere ordezkariak 3tik 2ra pasa da. Enpresa batzordea CCOOren 2 delegatuekin osatu da (41 boto), aurretik ez zuen ordezkariarik.

Irurtzungo Udalarik dagokionez, LAB sindikatuak jakinarazi du funtzionarioen artean zuen delegatua berretsi duela eta, bestetik, langile laboralen artean beste ordezkari bat gehiago eskuratu duela. Azkenik, sindikatuak jakinarazi du Altsasuko musika eskolan eta Guaixe fundazioan zituen ordezkariak segituko dutela.

Ihabarren urtea despiditu aurretik, patroia ospatzera

San Estebanen edo Donezteberen omenezko festa eguna dute asteazkenean ihabardarrek. Asteleheneko Olentzeroren bisitaren eta eguberri-egunaren ondoren, ospakizunetan majo entrenatuta iritsiko dira patroia egunera ihabardarrek.

Asteazkenearako prestatutako egitaraua 13:00etan hasiko da. Lehen-lehenik haurrendako bazkaria prestatu dute. Platerak garbitu eta gero haurrendako tailerrak izanen dira, 14:30etik 18:00etara. Txikiak begiraleekin dauden bitartean nagusiak bazkalzera eseriko dira 14:30ean. Ohi bezala, bazkaldu ondoren, umore onean, kantuan eta dantzari ariko dira.

Gobernuaren aurrekontuek Biak Batendako dirua

Parlamentuak atzo onartu zituen Nafarroako Gobernuaren aurrekontua. Gizarte Eskubideen Departamentuaren aurrekontuan Biak Bat-en egitasmo bat egiteko hitzarmen bat dago. Genero indarkeria pairatu duten adin txikikoei psikologia-arreta eskaintzea, animaliekin terapia eginez. Horretarako 20.000 euro partida onartu zen aho batez.

Ostatuagatik handitu da Lizarragako aurrekontua

Argindarra sortzeko mikro-sarea sortzea izan zen lehenik, 2017an. Argiteria publikoko bonbillak kendu eta LED argiekin ordezkatzeko izan da aurten. Eta heldu den urteko inbertsio nagusia medikuaren etxeko beheko solairuan ostatua eta denda egitea izanen da. Hiru urte eta hiru inbertsio. Azken horregatik 185.820 eurora arte handitu da Lizarragako Kontzejuko aurrekontua.

Xabier Senar Veiga kontzejuburuak jakinarazi digunez, 100.000 euroko aurrekontua duten lanen erdia Europako Landa Garapeneko programaren bidez pagatuko da. Beste erdia pagatzeko kontzejuk bi baso aprobetxamendu "majo" salduko ditu. Lanak otsailerako despetitu nahi lituzkete, eta Aste Santurako zabaldu. Baina ikus-teko dago altzariekin janzteko lanak zenbat luzatzen diren. Bestelako inbertsiorik ez dute aurreikusten kontzejuan, bide zati bat konpontzea akaso.

Uharteko udaletxeko safeiko lanak 2019ko hasieran bukatzera

Uharte Arakilgo udaletxeko safeian langileak espazioa egokitzen ari dira duela hilabete eta erditik. Lanak bukatu ondoren bi gela handi eta biltegi bat izanen dira. Geletako bat batzar, hitzaldi edo bileretarako izanen da. Bestea, berriz, erabilera anitzekoa izanen da. Azken horrek haurrendako ekintzak, tailerrak edota liburutegia har ditzake.



155.000 euro bideratuko dituzte bi urtez eginen diren berritze lanetarako. ARTXIBOA

Igerilekuak legedira egokitze bi urtez lanak

Araudia betetzen ez duten Nafarroako igerilekuen % 80ren barruan dago Lakuntzako eta 2020rako legean ezarritakoa bete beharra dagoenez, udalak 2019ko aurrekontutik horretara bideratu ditu 155.000 euro

LAKUNTZA

Punpak, hodiak, orduko ur metro kubiko kopuru jakin bat birzirkulatu beharra... Horiek jasotzen ditu igerilekuak arautzen dituen foru legeak eta Nafarroako azpiegituren % 80k betetzen ez duenak. Horren jakitun, Lakuntzako Udalak herriko igerilekua legedira egokitu du heldu diren bi urteetan. Hasteko 2019ko aurrekontuak 155.000 euroko diru-poltsa gorde du lan horiek egiteko. Patxi Xabier Razkin alkateak jakinarazi digunez, udalak heldu den urtean eginen duen inbertsio nagusienetako bat izanen da.

Udalak 2019an eginen duen beste inbertsioetako bat argite-

ria publikoarena da. Argindar kontsumoa eta pagatu beharreko faktura txikitze, egungo bonbillak LED argiekin ordezkatzeko ditu. Udalak aurretik LED argiak herriaren % 25ean jarri zituen. Orain asmoa da herriaren gainontzeko kale guztietan aldaketa egitea. Razkinek azaldu digunez, Nafarroako 8 udal estatuko diru-laguntza batera elkarrekin aurkeztu ziren. "Hura ebatzi gabe dago oraindik. Nafarroako Gobernuaren Tokiko Inbertsio Planean eskaera erreserban gelditu zen. Gobernuak finantza ikuspegitik jasangarriak diren 35,5 milioi euroko balioa egiteko oniritzia jaso du eta erreserbatik atera gaituzte".

Beraz, Lakuntzako Udalak 2019an 93.000 euro ordainduko dizkio Leycolan enpresari LED argiak jartzeagatik.

Inbertsio gehiago

Horiek dira Lakuntzako Udalaren 2019ko aurrekontuan agertzen diren inbertsio nagusienetako batzuk. Igerilekuko lanak eta argiteriako aldaketaren zati bat ordaintzeko udalak 209.000 euroko mailegua hartuko du. Razkinek esan digunez, "udalaren finantza egoera nahikoa saneatua da".

Lakuntzako Udalak heldu den urtean 1.287.000 euro kudeatuko ditu, aurten baino 280.000 gehiago, % 21,7ko hazkundea.

Beste inbertsio handietako bat Larrañeta, Kañada eta Mendigain kaleetako sareen berritzea, airetik eta fatxadetatik doazen kableak lurperatzea eta zoladura berria jartzea. Razkinek esan digunez, Hermanos Apezetxea enpresa hasi da dagoeneko lanean. Borda bat bota du eta markatzeak egin dira. Kaleak zulatuta ilbeltzean ikusten hasiko dira. Lanek 517.318,31 euroko aurrekontua dute. Ur sareari dagozkion 94.318,31 euroak Sakanako Mankomunitateak pagatuko du. Gainontzekoa udalak. Horretarako Toki Azpiegiturako Planeko diru-laguntza eta Erabilera Askeko Funtseko zati bat bideratuko du udalak (bestea hilerrian kolunbarioak egiteko erabili zen).

Sakana eta Behar zana frontoietako teilatuetan konponketak egiten dituzte. Argia pasatzen uzten duten plaketako batzuk hautsiak daude eta horiek ordezkatzeko dituzte. Baso-lanei dagokionez, bi aipatu dizkigu Razkinek: "eskolako eta ikastolako ikasleek eta haien gurasoek egiten duten landaketa bat eta basoko itxituren errepasoa".

Argiteria Etxarrin

Etxarriko Zumurdiñeta industrialdeko eta Arluzepe, Zugarreta, Bureña, Nagusia, Arangorrieta eta Aldapasoro kaleetako eta hilttegiko argindar koadroei lotuta dauden 473 bonbilla LED argiekin ordezkatzeko ditu Aldakinek 2019an.

CONSTRUCCIONES ALZATE S.L.

ALZATE ERAIKUNTZAK S.L.

Urte berri on!

Zubetia 21, Altsasu
Tel. 948 562 745 · Fax 948 467 600
www.construccionalazate.com

BILTOKI
TABERNA • JATETXEA

ETXERRA
JATETXEA

2019 urte berri on!!

948 467 070
Zumalakarregi plaza
ALTSASU

Txalaparta

Taberna

2019 urte berri on!!

948 467 070
Zumalakarregi plaza
ALTSASU

Ogiaren artisauak

PORTUKO okindegia

2019 urte berri on!

ETXARRI ARANATZ: 948 460 988
ALTSASU: Denda: 948 563 822 · Lantegia: 948 467 153

Kiosko-estaloa mustutzeko eguna

Bihar, 19:30ean, argi-izeraitzearen ondoren dantzariak, erraldoiek eta herriko musikariek parte hartuko dute. Tripeki-auzatearekin despedituko da mustutze ekitaldia, Udalak etxarriarrak ekitaldian parte hartzera gonbidatu ditu

ETXARRI ARANATZ

Etxarriarren artean denetarikoa iritziak sortu dituzten kiosko berriak eta estaloa mustutzeko eguna izanen da bihar. Eneka Maiz Ulaiar alkatea Belexe Irratian esan duenez (FM 107,3 edo www.guaixe.eus), "kiosko-estaloa kontzeptua dugu. Funtzio-anitzetako espazioa da. Arlo askotarako balioko duena: azokarako, aisialdirako, kultur programaziorako, kirola, denbora pasa eta parrandarako espazioa izanen da ere, dela auzate, bazkariak... Adinekoak, haurrak han egoteko ere balioko du, eguraldi txarra egiten duenez... Kiosko-estaloa gauza askotarako baliagarria eta polibalentea izanen dela aurreikusten dugu". Alkatea aipatu du egindako lanekin kioskoak zituen teknika arazo guztiak konpondu direla: altuera jaitsi, zabalera gehiago eman, zutabeak atera dira.

Maizek nabarmendu duenez, "urte eta erdi lanean egon ondoren jasotako emaitza da". Gogoratu zuen joan den urteko otsailean abiarazi zuela udalak plazari buruzko parte-hartze prozesua. "Taldea tekniko batean hainbat aditu, boluntario, musikari, arkitekto, udaleko langileak eta ordezkariak bildu



Etxarriko estaloa obrak, estalkia jarri berri.

ginen. Bi inkesta egin genituen. Lau batzar ireki deitu ziren. Plaza-aldea nola hobetu pittekapittea erabakiak hartzeko. Estaloa kate horren azkeneko kate-begia izan da momentuz".

Maizek gogorarazi du prozesu horren barruan aurretik zein lan egin diren: udaletxe ingurua eta Iturri-Eder ingurua oinezkoendako gune bihurtu zirela, mugikortasun eta irisgarritasun aldetik hobekuntzak egitea, Larreñondon 80 autotendako baino gehiagorendako egindako aparkalekua... Kiosko-estaloa

ilbeltzaren 26ko kinto ospakizunetan hartuko ditu aurreneko dantzaldiak. Hainbat kintadek bat egin dute eta egun horretarako disko-jartzailea kontratatuko dute, 20:00etatik 22:00etara eta 00:00etatik 02:00etara.

Datuak

350 m²-ko azalera. 16 zutabe, kiosko 6 barne.
50 m²-ko kioskoa. 0,5 metro kioskoa jaitzia.



Etxarriarrak urte berri egunean kantatzen.

Urtearen aldaketa ospatzeko modu ugari

Urteari kantuz emanen diote hasiera hainbat herrietan. Piroteknariak ere ez da faltako

ALTSASU

Urtea azken hatsa ematen duen momentuan, berria sortzen duen makina bat etxaju eta su artifizia lehertuko dira Sakana gauean. Aurretik batzuk mendira igoz, bizikletan ibiliz edo korrika eginez despedituko dute urtea. Poteoan besteek. Afari on batekin gehien-gehienek. Eta urteberriarekin batera kalera aterako da sakandar asko, tabernetan parranda egitera batzuk, kalez kale kantari ibiltzera besteak, gutxiago.

Urte berriko aurreneko orduan **irintarrek** Txapel Azpi elkartean bat egiten dute eta handik etxeko kantu eskea abiatzen dute. *Ur goiena* kantatu bitartean jatekoak jasoko dituzte eta erronda bukatzean elkartean dastatuko dituzte. **Arruazun**, gauerdian, iturriko ura jaso eta herrian barna banatuko dute ur berria urte berriari kantatzen dioten bitartean. **Lizarragabengoan** ere urteko lehen uneak etxetik kanpo emanen dituzte, etxeko kantu eskea *Ur goiena* kantua abesten.

Etxarri Aranatzen kantua abestu nahi duenak aukera bikoitza du. Ordu batean plazara deitu du preso eta iheslarien aldeko taldeak. Urte onaren alde topa egin eta urte berriari abestuz kantu erronda eginen dute herriko presoen senitartekoekin batera. Beste hitzordua ordu bietan da, eliz atean eta *Ur goiena* kantua herrian barna zabalduko dute. Francisco Urrestarazuk kantu herrikoia moldatu

zuen XX. mende hasieran eta gaur egun haren doinu alaia zabaltzen da herriko karraketan barna.

Iturmendin kintoak etxeko errondan ibiliko dira, kantu eskea urte berria zorionduz. Esker oneko gazteak direnez, pastak eta edatekoa eskainiko dituzte trukean.

Gauerdi aurretik dago hitzordua jarria **Urdiainen**, apaizaren etxe inguruan. Ezkila hotsak entzutearekin batera nesakiak eta mutilak herriko iturrietara abiatuko dira eta berezko pitxerretan ura hartu eta gero abiapuntura bueltatuko dira karpina bukatu aurretik. Han dauden guztiek *Ur goiena*, *ur barrena* kantua abestuko dute. Agintariak ur berriaren truke opil goxoak emanen dizkiete, aurrena gazteei, ondoren bildutako herritar guztiei. Ura ere banatuko dute. Eta urte osasuntsua opatuko diote elkarri. Burundako ondoko herrian, **Altsasu**, urte berri egunean udalak Gure Etxea eraikinean gaztainak, intxaurrak eta ardoa banatzen ditu. Talde ederra kantatzera elkartzen da urtero.

Azkenik, **Aralarko santutegian** urte hasieran bi elizkizun berezi izanen dira. Urteko aurreneko egunean eta errege egunean, ilbeltzaren 1ean eta 6an, 12:30ean meza nagusiak izanen dira. Harako bidea hartzen dute hainbat sakandarrek urte hasieran. Gauza berea eginen dute igandean mendizaleek, Aralarren hitzordua dutelako.

ARRUAZUKO OSTATUA ERRENTAN EMATEKO IRAGARKIA

Baldintzen plegua:

Uharteko Arakilgo udaletxean dago interesdunen eskura, eta kontratazio-atarian ere bai.

Proposamenak aurkezteko tokia eta epea:

Uharteko Arakilgo udaletxean, 2019ko urtarilaren 8an, 14:00ak baino lehen.

Uharteko Arakilen, 2018ko abenduaren 21ean.
Peio Betelu Garbasa,
Arruazuko Alkate Presidente

Arruazuko
Udala



kaxeta

liburudenda / paperdenda

Fotokopiak
liburuak
jostailuak
opariak
eskulanak



Zure
opari denda

948 460 477
Larrañeta 22, Etxarri Aranatz





Joan den urteko Lakuntzako erregetako kabalkada. ARTXIBOA

Trakatan, trakatan, hiru errege, trakatan, trakatan, Sakanara

Ekialdeko aztiak ilbeltzaren 5ean ibarra bisitatuko dute, haur, gazte, heldu eta adinekoen etxeetatik pasako dira

SAKANA
Ekialdeko erregeak ilbeltzaren 5ean etortzeko txikiek euren faleak, farak edo zintzarriak mugiarazi eta hotsa aterako dute, erregeei “hemen gaude” esan eta “bihar erregeak” direla iragartzeko. Irañetan eta Li-

zarragan goizez aritzen dira horretan, Etxarrin, Iturmendin eta Altsasun arratsalde. Eta iluntzearekin batera hiru erregeak segizio ikusgarriekin etorriko dira. 6an hainbat herrietako elizetako meza nagusian agerraldiak egingen dituzte.

Ekialdeko erregeen etorrera

Herria	Ordua	Tokia
Irurtzun	18:30	Bi Ahizpe kaleko beheko aldetik abiatuko da segizioa elizan bukatzeko
Uharte Arakil	18:00	Zerradoatik abiatuko da segizioa elizan bukatzeko
Lakuntza	18:30	Ibai aldetik
Arbizu	18:00	Udaletxetik abiatuko da segizioa ibilbidea elizan bukatzeko
Ergoiena	18:00	Lizarragako elizatik, ondoren Dorrao eta Unanura joateko
Etxarri Aranatz	19:00	Elizatik abiatuko da kalejira, txistulariekin, estalopean bukatzeko
Bakaiku	18:30	Beheko basotik etorriko da segizioa. Kalejira egin ondoren elizan banatuko dira opariak
Iturmendi	19:00	Beheko basotik etorri, herrian barna kalejira eta frontoian oparitzoak banatu
Altsasu	17:30	Farejoleen errege zozketa Foru plazan
	19:00	Sakana L.H. Institututik abiatu. Geldialdiak Zumalakarregi, Foru eta Zubeztia plazetan geldialdiak.
Olatzagutia	18:00	Jubilatu elkartetik abiatuko da segizioa frontoian bukatzeko
Ziordia	19:00	Texeria kaletik abiatuko da segizioa, herrian barna ibili ondoren elizara joko duena.



Urdiainen 2018ko gabonetan olentzero iritsi zenean. ARTXIBOA

Olentzero eta Mari Domingi astelehenean etorriko dira

Astelehen goizean haurrak eskean ibiliko dira, Uharten eta Etxarrin "pazkuan amores" esanez

SAKANA
Edo, behintzat, bere zakuan ekartzen duena bihurtzen du desiratu ikazkin tripa-handia, astelehenean bisitan etorriko dena. Menditik jaitsi eta sakan-dar guztiak bisitatuko ditu, txiki zein handi. Ez da bakarrik jaitsiko Mari Domingi ere berearekin batera etorriko baita ibar hondora. Eta astelehenean Sakana guztian lan handia izanen duenez, Etxeberri larunbatean bisitatuko dute. Aurreko egunetan bestelako mugimendurik ere bada, esaterako, Bakaikun igandean, 11:30ean, eguberri kantak entseatzeko hitzordua jarri dute, Olentzeroren eta Mari Domingiren segizioari behar bezalako harrera egiteko.

Bestetik, Sakanako hainbat herrietako laguntzaileek, Olatzagutiko Lamiatuturrek esaterako, txikien gutunak jaso eta basora eraman dituzte. Haiek irakurrita guztien desioak betetzea zaila dela jakinda etorriko da bikotea sakandarren artean euren opariak banatzera. Herrietan Olentzerori eta Mari Domingiri harrera egiteko segizioak sortuko dira eta bikotea txikiekin ere egonen da. Despeditu eta gero, bildutakoendako otamen edo auzaterik ez da faltako.

Olentzeroren etorrera

Herria	Ordua	Tokia
Irurtzun	18:30	Plazaolako zubia
Etxeberri	18:00	(Larunbatean) Menditik plazara. Taloak, txokolate-jana, Txantreako abesbatza, herriko txistulariak herrian barna, lagun ezkutua...
Etxarren	16:00	Urritzolako bidetik. Gaitariekin ongi etorria, kalejira. Frontoian opariak eta kalejira. Txoripanasen koreografia, txokolate-jana eta otamena.
Satrustegi-Hiriberri	17:30	Satrustegiko elkartearen txokolate-jana
	18:30	Olentzero Satrustegin
	19:30	Olentzero Hiriberri Arakilen
Ihabar	18:30	Autobia azpiko zubian
Irañeta	18:00	Autobus geltokia
Uharte Arakil	18:00	Martigarrotik
Arruazu	19:30	Arnazko bidetik etorri, kalejira elkartearen bukatuko da. Opari banaketa, gaztainak, ardoa eta musika
Lakuntza	18:00	Plazan
Arbizu	18:00	Plazan bildu, baso aldera abiatu, harrera egin, kalejira Argi Bidea elkartearen bukatuko dena
Unanu	18:00	San Donato bidetik jaitsi, kalejira egin, akabera txokolate jana edo goxokiak banatuko dira, plazan edo elkartearen
Dorrao	19:00	Hostogorritik jaitsiko da. Plazan haurren kantak, goxoki banaketa, elkartearen merendua.
Lizarraga	18:00	Menditik, etxe bakoitzak bere kandela eramane du
Etxarri Aranatz	17:30	Aldapasoro auzoan egingen zaie harrera eta kalejirak estalopean bukatuko du.
Bakaiku	18:00	Aiztin, ondoren herrian barnako kalejira.
Iturmendi	19:00	Menditik etorri, herrian barnako kalejira egin frontoian bukatzeko. Saski baten zozketa, txokolate-jana, ardo beroa
Urdiain	18:00	Portuko kaletatik etorri eta harrera egin.
Altsasu	11:15	Mari Domingi gaztetxetik Zumalakarregi plazarantz abiatuko da, behin iritsita hamabitakoa egonen da
	17:45	San Juan ermitan. Zumalakarregin geldialdia, Foru plazan bukatzeko
Olatzagutia	18:30	Belengo iturritik iritsiko da, kalejira frontoian bukatzeko
Ziordia	18:00	Menditik jaitsi eta kalejira egingen da gaztetxean bukatuko dena

Brun forjatik Tinduferra, sahararrak trebatzera

Tindufeko errefuxiatu eremuan forja eta soldadura trebakuntza teorikoa eta praktikoa eskaini du Eduardo Brun Irisarri. Errefuxiatuen artean elikagaiak eta gasa banatzeko erabiltzen diren kamioietako gurtioholak handitu dituzte

IZURDIAGA

Aljeriako hego-mendebaldean dago sahararren Tindufeko errefuxiatu eremua. Eta foru-zubia baliatuta bi asteko egonaldia egin du Eduardo Brunek. Bigarren egonaldia izan da. Mugarik Gabeko Langile eta Teknikarien Elkarteko kideekin batera joan zen Brun estreinakoz joan den urtean. Saharako Ilargierdi Goriak Tindufeko errefuxiatu eremuan elikagaiak banatzeko Rabouniko garraio basean egon zen eta soldadura ikastaroa eman zuen. Trebakuntza saioa pieza batzuk egiteko baliatu zuten.

Brunek esan digunez, aurturte ere toki berera bueltatu da. “Goizez teoria lantzen genuen eta arratsaldean praktika. 30 urtetik gorakoak ziren. Gazteagoek paso egiten dute, dena egin jasotzen dutelako”. Elikagaiak eta gasa kamioien bidez banatzen dute. Kamioien gurtioholak alduera handitu zuten, karga gehiago eramateko. Bestetik, gas-botila asko hartzen dituzten ontziak batetik bestera eramateko kamioien atoiak egokitu zituzten. Egindako lanarekin “pozik” bueltatu da Brun, ez du baztertu hirugarrenez joatea.

Bizimodua

Joan aurretik haima batean bizitzeko eskaera egin zuen Brunek. Baina zubia zela eta errefuxiatu gunera jende asko bisitan joanenez, “segurtasun arrazoiengatik” kuartel batean egon behar izan zuen, “kontrolatuta”. Hala ere, joan den urtean ez bezala, azken bi egunak oporrak hartu zituen, “dena lana izan ez dadin, bestela ez duzu ezer ikusteko aukerarik”. Azken bi egun horietan gameluak, duinak, desertua ikusi eta jendea ezagutu, haien istorioak entzun zituzten. Eguzkitik babesteko txapela zeramaten eta uda Euskal Herrian ematen duten haur askoren agurra jaso zuen, “hara



Eduardo Brun Irisarri, Tindufeko errefuxiatuekin tailerrean. FORJAS BRUN

EDUARDO ETA GERARDO BRUN IRISARRI ANAIEK ARTISAU-MAISU IZENDAPENA DUTE

joaten diren guztiak estimatzen dituzte, baina Euskal Herria bereziki”.

Berarekin batera Raul Serrano joan zen, pailazo lanak eginak dituen. Hiru pailazo emanaldi egin zituen. Baina laugarrenak markatu zuen Brun: “aparteko toki batean zegoen leku batean arazo fisikoak dituzten haurrak dituzte. Eta haien ardura Italian dena utzi eta han lanean dagoen 64 urteko emakumezko bat du; 10 urte darama”. Euskal ikazkin ezagunena, Olentzero ere desertua zeharkatu eta Tinduferra iritsi zen eta haur eta helduen artean goxokiak eta puxikak banatu zituen. Haren ibilerak www.forjasbrun.eu web orrian ikus daitezke.

Artisau-maisu izendapena

Eraikuntza Tradizionaleko Maisuen Nazio Sareak bere baitan

hartu ditu Eduardo eta Gerardo Brun Irisarri forjariak. Euren ibilbidearen ebaluazioa egin eta gero bi anaiek euren aitak, Gerardo Brun Lapuentek zuen aitortza bera lortu dute. Sare hori direktorio bat da, eta bertan jardunean dauden eraikuntza era tradizionalari lotutako maisu nagusiak biltzen ditu. Maisu horien guztien lana eta, beraz, Brun anaiena kultur ondare ez-material gisa definitzen dute eta hura mantentzearen aldeko lana egiten du sareak.

Etxeetako leiho, balkoi eta ateetarako objektuak egiten dituzte. Anaiek euren lana egiteaz aparte, jendea forjan eta soldaduran trebatzen dute. Hiru hamarkada daramate horretan. Sakanako ikasle gutxi dituztela diote. Baina haietako batek, Aitor Ondarrak, bere forja lanen erakusketa egingen du Lakuntzako kultur etxean asteburuan.

Burdina nola lantzen den zuzenean ikusteko aukera dago ere, 2012tik forjaren interpretazio zentroa zabalik dutelako. Ordu batzuek forjari izateko esperientzia aparte hainbat pieza jasotzen dituen museoa ere bisitatu daiteke.



Gusen-Mauthausen kontzentrazio guneko argazkia. UTZITAKOA

Joan-etorriko argazki bidaia: Altsasu, Mauthausen, Altsasu

Iortia kultur gunean “El fotografo de Mauthausen” filma ikusi daiteke asteburuan. Pasabidean hango 40 argazki

ALTSASU

1936ko estatu kolpearen ondoren errepublika defendatu zuten askok Frantziako erresistentzian bukatu zuten borrokan. Eta zorritzarreko asko nazien esku gelditu ziren. Esaterako, Restituto Victor Andueza Ranero (1906-12-09 / 1941-02-14) altsasuarra Gusen-Mauthausen kontzentrazio eremuan hil zen. Baliteke eremu berean zegoen Francisco Boixek bere argazkiren batean ateratzea. Boix argazkilaria zen eta eremuan SS-koen laborategian lan egin zuen. Han egindako izugarrikerien hainbat argazkiren negatibo estalian gordetzea eta eremutik ateratzea lortu zuen beste hainbat lagunekin batera. Negatiboak Parisko Deportatu eta Barneko Egoiliarren Federazioari helarazi zizkieten. Eremua askatu ondoren ere argazkiak egin zituen. Boix Nurembergoko epailetan lekuko izan zen gero.

Argazki haiek eremuetatik bizirik atera ziren 2.000 errepublikazaleen artean banatu zituzten, “mundu guztiari holokaustoaren eta sarraski eremuetan milaka espainiarren eta beste nazionalitateetako hildakoen berri eman zezaten”. Arturo Carreño Parras altsasuarraren azalpenak dira azken horiek. Bere osaba, Jose Carreño, Mauthausendik bizirik atera zen, eta heriotz-esparruko 40 argazki jaso zituen. Horien kopia dira Iortia kultur gunean ikusgai daudenak. Bakoitzak bere azalpena du.

Biografia

Jose Herrinen, Albaceten, jaio zen 1918an. CNTren zale zen. 1936ko estatu kolpearen ondoren Frantziara jo zuen eta errepublikazaleendako eratu ziren kontzentrazio eremuetakoren batean sartu zuten. Handik ateratzeko Frantziako armadako espainiar langileen konpainian izena eman zuen. Maginoteko lerroan atxilotu zuen Gestapok 1941ean. Beste 24 espainiarrekin batera baldintza penagarrietan zegoen tren batean Bunchenwald kontzentrazio eremura eramane zuten. Eta handik Mauthausenera. Haren menpe zegoen Gusen eremura leku-aldatu zuten. Bertan zeuden pertsonak harrobiek zuten. Josek bizirik ateratzea lortu zuen nazien erlojuak kontzentrazio zitelako. 1940ko lastailaren 20an Altsasun izana zen SS-ko komandanteburu Himmlerrek behin Joseri erronka egin zion: erloju bat konpondu eta janari errazioa bikoiztea edo exekutatu izan. Gaixo zegoen lagun batengatik onartu zuen.

Ateratzea lortu zuen, ezkondu eta erlojugile gisa lan egin zuen. Parisen bisitatzen zuen Arturok. Eta hark kontatuta ezagutu zituen kontzentrazio eremuetako izugarrikeriak. Josek 40 argazkiak Arturoren aitari eman zizkion Parisen 1955ean, eta 1977ra arte ezkutuan gorde zituen. Gurasoak hiltzean Arturok argazkiak holokaustoaren berri emateko erabiltzen hasi zen.

HATOR, HATOR, BIRZIKLATZERA



Sakandarrok oso ongi portatu gara aurten eta Olentzerok zoriondu egin gaitu, sortzen ditugun hondakinen %55a baino gehiago birziklatu dugu-eta. Nafarroako daturik hoberena da hau!

Baina Sakanan badakigu gauzak hobeki egin ditzakegula, eta horretarako hiru konpromiso besterik ez ditugula hartu behar:

1

HONDAKIN GUTXIAGO
SORTU

2

BERRERABILI
BOTA BAINO LEHEN

3

SORTUTAKO HONDAKINAK
ONDO SAILKATU



Oficina de Prevención
de Residuos y de Impulso
a la Economía Circular
Hondakinak Prebenitzeko
eta Ekonomia Zirkularra
Bultzatzeko Bulegoa



residuos de navarra
nafarroako hondakinak



Nafarroako Gobernua
Gobierno de Navarra



Mank
s a k a n a

organikoa



Sortzen ditugun hondakinetatik, organikoa da proportzionalki pisu gehien daukan frakzioa, %45 inguru, hain zuzen ere. Kontuan hartuta lehengai izugarria dela konposta egiteko eta zabortegietan isurtzen denean arazo larriak sortzen dituela, ezinbestekoa da frakzio organikoa errefusarekin batera ez botatzea. Horregatik Sakanan derrigorrezkoa da organikoa banatzea bilketarako.

Zer da organikoa?



Nola has naiteke?

Organikoa banatzeko aukera ezberdinak daude herriaren arabera. Informazio gehiago nahi izanez gero, dei ezazu 900 734 450 doako telefonora.

Konposta banatzen al duzue?



Etxebizitza bakoitzak 250 kg konpost jaso ditzake urtean. Dohainik eskaintzen dugu, eta eskuratu ahal izateko Arbizuko zabortegira joatea besterik ez duzu.

Ordutegia: astelehenetik ostiralera, 07:30-15:00

organikoa



Eguberrietan, bazkariak eta afariak direla eta, hondakin organiko kopuru handia sortzen dugu. Baina hondarrekin eta irudimen pixka batekin janari goxoak presta ditzakegu.

Hona hemen ideia batzuk:

Arrain-pastela



Osagaiak:

Arrain sobrak, 250g
Esnegaina, 250ml
Arrautzak, 3
Tomate saltsa, 3 goilarakada
Gatza eta piper beltza

Nola prestatu:

Labea 180 gradutan jarri. Arrain soberakina eskuekin txikitu eta, hezurak baditu, kendu. Arraina esnegaina eta arrautzekin nahastu eta piper beltza eta gatza bota –kontuz gatzarekin, gogora ezazu arrainak gatza baduela–. Bizkotxoak egiteko erretilu batean jarri eta labean sartu. Ordu erdi inguruan labean eduki. Laban batekin ziztatu eginda dagoela ziurtatzeko. Pastela hotza edo beroa jan daiteke.

Eguberri-pizza



Osagaiak:

Pizza edo hostopil masa
Txanpiak
Tomate frijitua
Haragi errearen sobrak
Piper berde eta gorria
Tipula
Gazta txikitua

Nola prestatu:

Labea 200 gradutan jarri.
Tipula, txanpiak eta piperrak xaflatan moztu eta olio pixka bat daukan zartagin batean sukaldatu.
Pizza edo hostopil masa luzatu eta tomatea gainetik barreiatu.
Haragi errearen sobra txikituak, txanpiak, piperrak eta tipula gainetik banatu.
Gazta bota eta labean sartu, masak kolorea hartu eta gazta urtu arte.


Ogi-budina

Osagaiak:

Ogi gogorra, pusketetan
Kanela makila
Esnea, 1/2 l
Arrautzak, 3
Azukrea, 3 goilarakada
Gurina, goilarakada 1 (urtuta)

Nola prestatu:

Esnea berotu kanelarekin batera. Irakiten hasten denean, tapa jarri eta sua itzali. Behin esnea epelduta, kendu kanela-makila. Arrautzak azukrearekin eta gurinarekin irabiatu eta gehitu esnea, dena ondo nahastuz. Bota ogi pusketak bertan, erabat busti daitezen. Nahasketa guztia bizkotxotarako erretilu batean bota eta labean sartu, 180 gradutan. Orduerdi pasatutakoan laban batekin ziztatu egina ote dagoen ikusteko. Oraindik egin gabe badago utzi labe barruan. Hotz zein bero dasta dezakezu postre gozo hau.



On egin!



pinuak

Etxean Eguberrietako pinua jarri baduzu, ez utzi konpostagailuetan, edukiontzietan edo kalean, aparteko bilketa egiten dugu-eta. Behin txikituta, egituratzaile moduan erabiliko ditugu konposta egiteko.



Nora eraman dezaket pinua?

Irurtzun



Etxarri Aranatz



Altsasu



Uharte Arakil



Bakaiku



Lakuntza



Iturmendi



Olazti



Ziordia



Urdiain



Ihabar



Izurdiaga



Zure herrian pinuak uzteko tokirik ez badago –edo, nahiago baduzu–, Arbizuko zabortegiko inauste-gunera eraman dezakezu.

Ordutegia: astelehenetik ostiralera, 07:30-15:00



ontzi arinak

Eguberrietan, Olentzerok ekarritako oparien bilgarriekin eta bazkari eta afariak prestatzeko erosten ditugun jakien ontziekin, hondakin bolumen itzela sortzen dugu. Egoera hori hobetzea erraza da. Arduratsu jokatu besterik ez dugu egin behar, bai erosketak egiterakoan, bai hondakinak sailkatzerakoan.



Zer dira ontzi arinak?



Gogoratu!

Erosketak egitea zoazenean, poltsa berrerabilgarriak eraman itzazu. Horrela, erabilera bakarreko plastikozko poltsen kostua aurreztuko duzu, eta, aldi berean, hondakin gutxiago sortuko duzu.

Arrandegian eta harategian tuperrak erabiltzea ideia bikaina da ere.

papera/kartoia

Opari asko kartoizko kutxetan sartuta eta paper politekin bilduta jasotzen ditugu –ikatzak besterik jaso ez badugu, noski–. Errefusarekin batera botatzen baditugu, zabortegei batera joango dira eta oso garesti aterako zaigu, bai diru aldetik, bai ingurugiro aldetik. Gogora ezazu kartoizko kutxak zapaltzea garrantzitsua dela bilketa errazteko: edukiontzietan tokia izan eta papera eta kartoia behar bezala sailkatzeko.



Zer da papera eta kartoia?



Gehiago egin al dezaket?

Opariak biltzeko papera behin bakarrik erabili beharrean, gorde ezazu berrerabiltzeko. Eta zergatik ez originala izan eta furoshikiarekin ausartu (hurrengo orrialdean); edo kartoizko kutxa bat lanpara, etxetxo edo bururatzen zaizun edozer gauza bihurtu? Hona hemen ideia bat:



papera/kartoa

Zer da furoshiki-a?

Japonian oihal zati karratuei furoshiki deitzen diete. Edozer gauza alde batetik bestera eramateko erabili ohi dituzte (erosketak, janaria e. a.). Askotan diseinu zoragarriak dituzte furoshikiek, eta opariak biltzeko primerako materiala da: polita eta berrerabilgarria. Hona hemen ideia batzuk. Gogoratu edozein oihal erabil dezakezula, karratua besterik ez du izan behar.



beira

Ba al zenekien gaur egun beira egiteko erabiltzen diren lehengaiak egiptoarrek ere erabiltzen zituztela orain dela milaka urte? Beira %100ean birziklatu daiteke, eta askoz energia gutxiago behar da birziklatutako beirarekin beste ontzi bat egiteko. Botila eta poto guztiak, iglura.



Zer da beira?



i 900 730 450

ESKERRIK ASKO ETA EGUBERRI ON!



Oficina de Prevención
de Residuos y de Impulso
a la Economía Circular
Hondakinak Prebenitzeko
eta Ekonomia Zirkularra
Bultzatzeko Bulegoa



residuos de navarra
nafarroako hondakinak



Nafarroako Gobernua
Gobierno de Navarra



Mank
sakana

AGENDA

HURRENGO GUAIXEA ILBELTZAREN 11N IZANEN DA. Tel.: 948 56 42 75 / gutunak@guaixe.eus



IRURTZUN Iñaki Beorlegui margolari euskal-mexikarraren migrazioaren eta Mediterraneoaren inguruko marrazkien erakusketa. Urtarrilaren 13ra arte, Pikuxar euskal txokoa.



LAKUNTZA Forjas Brun erakusketa. 23ra arte, kultur etxean.



ALTSASU Navarrorum euskararen gaineko dokumentu nafarren bi mila urteko ondarea. Abenduaren 23ra. Astelehenetatik larunbatetara 18:30etik 21:00etara eta igandetan 16:00etatik 20:30era, lortian.



ALTSASU Jose Carreño Saez Mauthausenen egondako deportatuaren argazkien eta postalen erakusketa. Abenduaren 21ean eta 23an, "El fotografo de Mauthausen" filmaren emanaldiaren aurretik, lortia kultur gunean.



OLAZTI Jaiotzen erakusketa. Urtarrilaren 7ra. Astelehenetik ostiralera 18:00etatik 20:00etara, larunbatetan 17:30etik 20:00etara eta igandetan eta jaiegunetan 13:00etatik 14:00etara eta 17:30etik 20:30era.

OSTIRALA 21

LAKUNTZA Eskolaren jaialdia. 09:00etan, kultur etxean.

LAKUNTZA Forjas Brun erakusketaren mustutze musikatua. 19:00etan, kultur etxean.

ETXARRI ARANATZ Beilatokia toki egokian. Kontzentrazioa. 19:00etan, Kale Nagusiko 7.ean.

ETXARRI ARANATZ Udal Musika Eskolako ikasleen Gabonetako kontzertua. 19:00etan, kultur etxean.

ALTSASU Altsasuko musika eta dantza eskolaren urte bukaerako kontzertua. 19:00etan, kultur etxean.

ALTSASU Jose Antonio Beloquiren *Navarra ¿por qué no es un estado?* liburuaren aurkezpena. 19:00etan, lortia kultur gunean.

IRURTZUN Aralar. Munduko leku den lurra dokumentala. 20:00etan, kultur etxean.

ARBIZU ETA ETXARRI ARANATZ Euskal presoak Euskal Herrira

kontzentrazioak. 20:00etan, plazan.

ALTSASU Altsasukoak aske. 20:00etan, udaletxe parean.

ALTSASU *El fotografo de Mauthausen* filma. 22:00etan, lortia kultur gunean.

ALTSASU Gazte agenda. Kontzertua: Atzapar Rock eta Roten XIII. 23:00etan, plazan.

LARUNBATA 22

ALTSASU Gazte agenda. Bingo txoko. 18:00etan, Intxostiapuntan.

ALTSASU Hodei Magoa eta Haize Berriak bandaren *Magic Melody* ikuskizuna. 18:00etan eta 20:30ean, lortia kultur gunean.

ETXARRI ARANATZ Estalopie mustutzie: argi-izeraitzie, Etxarriko dantzariyek, Etxarriko erraldoyek, Etxarriko musikariyek eta auzatie. 19:30etan, plazan.

IGANDEA 23

ALTSASU Irumugara 49 kilometroko ibilbidea eginen dute Barrankako mendikoek. 08:30ean, taldearen egoitzatik.

UHARTE ARAKIL Mendigoizale Eguna Aralarren. 08:30ean, Lakuntzatik.

ETXARRI ARANATZ Txakurkrosa. 09:30ean, kanpinean.

ALTSASU Olentzeroren postontzia. Iñigo Aritza Ikastolak antolatuta. 11:00etan, Dantzalekuko futbol zela zaharretik.

ZIORDIA Ziordiko ilargia dokumentalaren mustutzea. 11:45ean haurrendako eta helduendako 13:00etan eta 19:00etan, elkatean.

ALTSASU Gazte agenda. Lince txapelketa. 18:00etan, Intxostiapuntan.

ETXARRI ARANATZ Etxarri Aranazko abesbatzaren Pax kontzertua abesbatza txikiaren laguntzarekin. 19:00etan, elizan.

ALTSASU *El fotografo de Mauthausen* filma. 19:30etan, lortia kultur gunean.

ALTSASU Euskal presoak Euskal Herrira kontzentrazioa. 20:00etan, Foru plazan.

ASTELEHENA 24

ETXARRI ARANATZ Kalejira. Presoen aldeko etxex etxeko diru bilketa. Goizez, herrian barna.

ASTEARTEA 25

ETXARRI ARANATZ Presoen aldeko gaupasa. 01:00etan, Leku Ona tabernan.

ASTEAZKENA 26

ALTSASU Booktubeak egiteko lantegia euskaraz. Mank. 10:00etan, lortian.

URDIAIN Sakanako Gazte Asanbladen arteko jardunaldiak. Mahai ingurua: Sakanako Gazte Asanbladaren

bilakaera. 11:00etan, gaztetxean.

IRURTZUN Gabonetako zinea euskaraz. Pikuxarrek antolatuta. 17:30ean, kultur etxean.

ALTSASU Gazte agenda. Fornite txapelketa. 18:00etan, Intxostiapuntan.

ALTSASU Dantzarima dantza konpainiaren eta Milakolore elkartearen *Milakolore dantzan* ikuskizuna. 19:30ean, lortian.

OSTEGUNA 27

ALTSASU Komikiak egiteko lantegia. Mank-ek antolatuta. 10:00etan, lortian.

IRURTZUN Pasaiaiko badia dokumentalaren proiektzioa eta egileetako batekin solasaldia. 17:30ean, kultur etxean.

IRURTZUN Gabonetako parkea: pantailak, puzgarriak eta ludoteka. 11:30etik 13:30era eta 17:00etatik 20:00etara, pilotalekuan.



Leihoen, ateen eta kontraleihoen fabrikazio eta muntaketa • Balkoien eta terrazen itxitura • Kolore guztietako mallorkinak • Konpromezurik gabeko aurrekontua

info@dekovennavarra.com - www.dekovennavarra.com
Ibarrea industrialdea, 9 pabiloia - ALTSASU
Telf./Faxa: 948 468 360 - Telefono mugikorra: 690 641 860

ALTSASU *El regreso de Ben* filma.
19:30etan, lortia kultur gunean.

UHARTE ARAKIL Kafe konpondu.
18:00etatik 20:00etara, udaletxean.

OSTIRALA 28

ALTSASU Album ilustratuak egiteko
lantegia euskaraz. Mank.
10:00etan, lortia kultur gunean.

OLAZTI Jolas parkea.
11:30etik 13:30era eta 16:30etik 19:30era.

IRURTZUN Euskal ekitaldiak.
Euskaraz futboleak: gurasoak
seme-alaben aurka. Aizpeak
antolatuta.
12:00etan, kiroldegian.

ETXARRI ARANATZ *Olentzero kuttun:*
Olentzeroren ipuinak eta abestiak.
17:30etan, kultur etxean.

URDIAIN Kafe konpondu.
18:00etatik 20:00etara, udaletxean.

ALTSASU Gazte agenda. Truko
emanaldia.
18:00etan, Intxostiapuntan.

ETXARRI ARANATZ Beilatokia toki
egokian. Kontzentrazioa.
19:00etan, Kale Nagusiko 7.ean.

ALTSASU Ipuinen unea. Birjinia
Albiraren Barre ipuinkontalariak
Barre egin ipuina kontatuko du.
19:00etan, lortia kultur gunean.

ETXARRI ARANATZ Orain presoak
ekimena eta Euskal presoak Euskal
Herrira kontzentrazioa.
19:00etan, plazan

ALTSASU Altsasukoak aske.
20:00etan, udaletxe parean.

ALTSASU *El regreso de Ben* filmaren
emanaldia.
22:00etan, lortia kultur gunean.

LARUNBATA 29

ALTSASU Gazte agenda. Kotigala:
brindisa, aforia eta musika.
21:00etatik 01:00etara, Intxostiapuntan.

IRURTZUN Mus txapelketa. Pikuxar.
16:00etan, Pikuxarren.

ALTSASU Trasteando taldearen
Cantos con encanto ikuskizuna.
19:30etan, lortia kultur gunean.

IGANDEA 30

ALTSASU Irañetako iturburura 55
kilometroko ibilbidea egingen dute
Barrankako mendi atalekoek.
07:30etan, taldearen egoitzatik.

OLAZTI Pilota afizionatuen partidak.
17:00etan, frontoian.

ALTSASU Gazte agenda.
Intxostiapunta 2018 proiektzioa.
18:00etan, Intxostiapuntan.

IRURTZUN Urko Mauduiten film
laburren proiektzioa. Pikuxar.
19:00etan, Pikuxarren.

ALTSASU *El veredicto* filma.
19:30etan, lortia kultur gunean.

ALTSASU Euskal presoak Euskal
Herrira kontzentrazioa.
20:00etan, Foru plazan.

ASTELEHENA 31

LAKUNTZA Lakuntzeskoarrira
Zabalarterekin.
08:30etan, plazan.

IRURTZUN Txokolate jana eta
Trinitatera igotzea. Pikuxarrek eta
Iratxo elkarteak antolatuta.
09:00etan, Pikuxarretik.

ALTSASU San Silvestre-XXXVI.
Urbasako igoera. Altsasuko kirol
elkarteak antolatuta.
12:00etan, Zumalakarregi plazatik.

IRURTZUN Herri lasterketa.
16:00etan, plazan.

ASTEAZKENA 2

ETXARRI ARANATZ Gabonetako jolas
parkea.
11:30etik 13:30era eta 16:30etik
19:30era, frontoian.

IRURTZUN Gabonetako zinea.
17:30etan, kultur etxean.

IRURTZUN Bertso desafioa. Pikuxar.
18:00etan, Pikuxarren.

OSTEGUNA 3

IRURTZUN Txontxongiloen tailerra
Baga Biga txontxongilo antzerki
konpainiaren eskutik.
11:00etatik 13:00etara, kultur etxean.

IRURTZUN Txontxongilo antzerkia
euskaraz: Baga Biga antzerki
konpainiaren *Olentzeroren abenturak.*
17:30etan, kultur etxean.

ETXARRI ARANATZ Errepresaliatu
gaixoak kalera, amnistia osoa.
AEMren Kontzentrazioa.
19:30etan, plazan.

OSTIRALA 4

ETXARRI ARANATZ Beilatokia toki
egokian. Kontzentrazioa.
19:00etan, Kale Nagusiko 7.ean.

ARBIZU ETA ETXARRI ARANATZ
Euskal presoak Euskal Herrira.
20:00etan, plazan.

ALTSASU Altsasukoak aske.
20:00etan, udaletxe parean.

ALTSASU *El veredicto* filma.
22:00etan, lortia kultur gunean.

IGANDEA 6

OLAZTI Danza Rusa eta Moderna
Juvento dantza taldeen *A través del espejo*
dantza ikuskizuna.
18:00etan, frontoian.

ALTSASU *El veredicto* filma.
19:30etan, lortia kultur gunean.

ALTSASU Euskal presoak Euskal Herrira.
20:00etan, Foru plazan.

ALTSASU Pentsio duinen alde.
Nafarroako Pentsionistak Martxan
eta Otsailaren 22ko Plataformak
deitutako elkarretaratzea.
19:00etan, udaletxearen parean.

ESKELA



**Lorea
Gonzalez Vega**

"Haur ttikiek beti jakin izan dute
ikusten dugun mundua garela
orbela, hostoa eta lorea,
zerua, ilargia eta izarrik urrunduena"

Lakuntzako Herri Eskolako komunitatea

ESKELA



**Lorea
Gonzalez Vega**

"Beti izango zara gure bihotzetan"

Lakuntzako 79ko kinta



IZARRA

HEMEN, ZURE ONDOAN
AQUÍ, A TU LADO

«Bizitzan badira une batzuk
zeinetan norbait
ondoan behar dugun»

BEILATOKIAK

ALTSASU **ETXARRI-ARANATZ**
Santa Cruz, 6 Nagusia, 2

948 05 90 90 · www.izarratanatorio.com

IRACHE
tanatorioak

Tanatorioak: Altsasu – Irurtzun – Lekunberri – Betelu – Leitza

“Betidanik”

948 19 70 70
@Grupolrache
Grupolrache
www.tanatoriosirache.es

ESKELA



Lorea Gonzalez Vega

Laister arte Lorea,
zure familia orain gurea da ere.

1969ko Lakuntzako kintoak



JAIOTZAK

- **Leyre Gorriti Borreguero**, abenduaren 9an Uharte Arakilen
- **Ibai Godoy Domanico**, abenduaren 12an Altsasun

EZKONTZAK

- **Jon Perez de Villarreal Zufiaurre eta Natalia Butucea**, abenduaren 14an Urdiainen

HERIOTZAK

- **Jose Andres Gabirondo Goikoetxea**, abenduaren 9an Altsasun
- **Lorea Gonzalez Vega**, abenduaren 18an Lakuntzan

IRAGARKI SAILKATUAK

IBILGAILUA
SALGAI
Iturmendin Autokarabana salgai: KNAUS TRAVELLER 700MG Kaputxina. Interesatuak deitu 678 067 155 tfnora.

LEHIAKETAK
GAZTEWOOD. Altsasuko gazte-
txearen III. Film laburren txapel-
keta. Gehienez 15 minutu. Lanak
MP4 formatuan, DVDan edo
pendrivean aurkeztu behar dira
2019ko martxoaren 19a baino
lehen. Informazio gehiagorako
gazteewood@gmail.com edo sare
sozialetan gazteewood profilean.

OHARRAK
Etxarriko irakurle taldea. Il-
beltzaren 4an, ostiralean,
19:00etan Etxarri Aranzako li-

burutegian elkartu eta Arantxa
Urrutabizkaia "Bidean Ikasia"
liburuaz hizketatuko dira.

Sakana Trenaren alde. Taldea
astelehenero, 19:00etan, elkar-
tzen da. Behin behineko biltokia
LABek Altsasun duen egoitzan
da, han egiten dira bilerak.

Nafarroako Elikagaiein Bankuaren alde. Diru ekarpenak
kontu korronte hauetan egin dai-
tezke: Laboral kutxa 3035 0069
52 0690024878, Rural kutxa 3008
0001 16 0700279128 eta Caixa
2100 2173 87 0200346965

GoEner. Iruñeko helbide berria:
Kale Berria 111, 31001 Iruñea, tel
948 504 135. Hileroko 1. eta 3.
asteazkenetan, 17:00-19:00.

Autoenplegurako laguntza. Zure
lanpostua sortu nahi baduzu Ce-
derna-Garalurrek honako laguntza

eskaintzen du: ideia aztertzea,
proiektua garatzea, enpresa sor-
tzea edota marxan dagoen jar-
duera sendotzea. Argibide gehia-
go: 948 56 70 10, sakana@ce-
derna.es edo sakana.admon@
cederna.es

3MBk kontu korrontea zabal-
du du Rural kutxan eta jendeak
han egin ditzake ekarpenak
3008 0093 66 2460985811.

**OPATUTAKOAK/
GALDUTAKOAK**
ERLOJUA ALTSASUN. Esferaren
atzeko aldean MR hizkiak eta 22-6-
53 eta 22-6-78 datak ditu idatzia-
k. Longines markakoa. Galdutuenak
Guaixe astelehenetik hotz egin dezala,
948 564 275

www.iragarkilaburak.eus

ZORION AGURRAK



Maren Azpiroz
Zorionak politte! Muxu
haundi bat denon
partetik!!



Urte askuen, Luis!
Eutsi lagun. Boltio,Oihan,hi eta beste denen etorrerak
ekarriko dik herri honetara ASKATASUNA!
Bitartean, zuen launek BETI ZUEKIN!
#OrainPresoak



Aurreko urtean elurtuta zegoen baina mendizaleek gustura jo zuten Aralarko Mendigoizale Eguna. UTZITAKOA

"Goazen mendizaleak Aralarrera..."

MENDIA Igandean 54. Mendigoizale Eguna ospatuko da Aralarko San Migel santutegian. Sakanako Mendizaleak taldeak 8:30ean jarri du hitzordua, Lakuntzan. Hildako mendizaleak oroitu eta urtea despeditzeko modu polita da

Gabonen aurreko igandean, ohi bezala, Euskal Herriko Mendi-
goizale Eguna ospatuko da Ara-
larko Santutegian. Nafarroako
klub guztietako mendizaleak
bildu, eurekin ez daudenak oroitu,
aspaldiko lagunak ikusi eta
urtea despeditzeko egun apro-
posa da. Aurten, gainera, gabon
ikutu gehiago izango du egunak,
Gabon bezperaren aurreko egu-
nean izanen delako, abenduaren
23an, igandean, hain zuzen ere.

Aurrekariak
1964. urtean, urte horretan hil-
dako hiru mendizale gogoratze-
ko ekitaldia egin zen Aralarren
eta hortik aurrera urtero erre-
pikatu izan da. Hortaz, igande-

koa festaren 54. edizioa izango
da. Festa antolatzeko txandaka-
tu egiten dira Nafarroako men-
di klubak eta aurten Boscosp
taldeari eta Nafarroako Mendi
eta Eskalada Federazioari ego-
kitu zaie ardura.

Meza, 11:00etan, eta auzatea
Goizean goiz ekingo diote men-
dizaleek Aralarrera igotzeko
lanari. Toki ezberdinetatik abia-
tuko dira: Uharte Arakil, La-
kuntza, Madotz, Lizarrusti,
Baraibar... Sakanako Mendiza-
leak taldeak goizeko 8:30ean
jarri du hitzordua Lakuntzan,
bertatik igotzeko. Mendizale
taldeak gutxika baina etengabe
iritsiko dira santutegira.

Aralarrera igotzeko gonbita
Goizeko 11:00etan hasiko da
mendizaleen meza elizkizuna.
Mendiko materiala bedeinkatu-
ko eta Aralarko Mikel Goia-
ingeruari musu emateko aukera
izango dute nahi dutenek. On-
doren, 12:00etan, Aralarko osta-
tuan hamaiketako izanen dute
prest, trikitixa lagun dutela.
Aspaldiko ezagunekin biltzeko
aukera paregabea izango da
igandekoa, eta ez dira kantak
eta dantzak faltako. Egun polita,
bertara igotzeko gonbita egin
dute. Kofradiatik adierazi digu-
tenez, bi meza elizkizun izanen
dira igandean: 11:00etakoa, men-
dizaleena, eta 12:30koa, igande-
roko meza nagusia.

2018ari agur eta 2019ari ongi etorria, mendian

Ergako Trinitatea: Abenduaren 31n,
9:00etan, txokolatada eta
Trinitaterako igoera Irurtzunen.

Aizkorri: Abenduaren 31n Altsasuko
Mendigoizaleak eta Sutegik prestatua.

Lakuntzaskoarri: Abenduaren 31n,
goizeko 8:00etan, Lakuntzako
plazatik. Zabalartek antolatuta.

Beriain: Ilbeltzaren 6an, 9:00etan
Unanitik aterata. Sakanako
Mendizaleak.

Bargagain: Ilbeltzaren 6an, 9:00etan
Altsasuko plazatik. Mendigoizaleak.



Aurreko urteko Ergako Trinitateko igoera, urteko azken egunean. UTZITAKOA



Banaka jaso zuten saria, baina bukaeran guztiek batera talde argazkia egin zuten, lhabarko herriko etxean.

Ostiral arratsaldean lhabarko herriko etxea kirolarien topagunea izan zen. Sakanako Mankomunitateak antolatutako 2017/2018 Sakanako Kirol onenen sari ematea bertan izan zen. Mank-eko kirol teknikari Amaia Gerrikagoitiak gidatutako ekitaldian, Mank-eko presidente David Orozek, Mank-eko kirol batzordeko presidente Alberto Martinezek, Arakilgo Udaleko zinegotzi Mitxel Laplanak eta lhabarko Kontzejuko kide Jaione Astizek eman zituzten sariak. Beste behin, Sakanan kirolak osasun bikaina duela agerian gelditu zen.

Omendutakoak, pozik

Sakanako kirolari onenek pozik hartu zuten Mankomunitateak egindako errekonozimendua. Gehienek "ez zutela espero" nabarmendu zuten.

"Sorpasarekin hartu nuen izendapena, ez nuen espero. Pozik nago, Gobernuan ere ez dute monoziklismoa kiroltzat onartzen, eta Sakanan kirolari onena izendatzeak ilusio handia eman dit. Aldarrikapen puntu hori egin nahiko nuke. Helburu nagusia heldu den urtean Hollandan jokatu den Europako Monoziklismo Txapelketan aritzea da" adierazi zigan Ekhi Congil monoziklistak.

Olga Garciandia ere pozik zegoen. "Halako errekonozimendua batek motibatu egiten zaitu. Ipar-eskia da nire kirol nagusia; Espainiako Ipar-eski Kopan pos-

Gure kirolari onenei aitortza

KIROLDEGIA Aurreko ostiralean lhabarko herriko etxeak 2017/2018ko Sakanako kirolari onenen sari ematea hartu zuen. Kirolariek oso eskertuta jaso zuten errekonozimendua eta gehienek izendapena "sorpasaz" hartu zutela onartu zuten

tu ona egitea eta ahal badut kanpoan maila ona ematea da aurtengo helburua. Egun, Jakako teknifikazio zentroan nago, gustura, Norvegiatik etorri berri" azaldu zigan etxarriarrak.

Unai Villalobosek ere sorpresaz hartu zuen saria. "Entrenatzen bueltan gurasoek esan zidaten". Irristaketan, Garesko maratoian lehendabiziko juniorra izan zen, bere lehendabiziko maratoian, eta handia da hori. Bestalde, bere txirrindularitza klubak ere, Burundak, talde onenaren saria jaso zuen. "Sari bikoitza. Oso pozik nago"

YOSEIKAN BUDO TALDEKOEK EUSKARA EURENDAKO EZINBESTEKOA DELA NABARMENDU ZUTEN

adierazi zigan. Heldu den urtean irristaketan eta txirrindularitzan jarraituko du, juniorretan.

Olaia Eizagirre eta Izar Parrot ere kontentu zeuden. "Ez genuen espero, egia esan. Ia ahaztua geneukan Euskal Herriko ligako 2. mailako pala txapelkunak garelako, baina ongi, poza hartu dugu palan hor ibili garelako urtetan, eta pozik". Eizagirre Sakanako Pala Txapelketan murgildua dago egunotan, eta Izarrek denboraldi baterako utzi du pala, ikasketak eta beste direla, zaila baita, askotan guztia ongi uztartzea.

Jose Luis Beraza Uharte Arakilgo mendi korrikalari beterranoa ere oso kontentu zegoen. "Ilusio handia dut, etxeko errekonozimendua delako, eta oso pozik hartu dut. Trofeo berezia da hau, ez delako lasterketa bateko podiuma, bertako aitortza

baizik" azaldu zuen. Mendiaz disfrutatzen jarraitzea, hori da urte berrirako asmoa. "Eta lasterketetan aritzerik badut, parte hartzea. Lan kontuak direla eta, askotan zaila egiten baitzait. Oso eskertua nago" gaineratu zuen. **Ginesa Lopez Cidek** ezin izan zuen ekitaldian egon eta bere senitarteko batek jaso zuen oroigarria, eskertuta.

Burunda Txirrindulari Taldeko Gorka Mintegi ere eskertuta zegoen. Sakanako talderik onena da Burunda, Aralar klubarekin batera. Bi taldeek sekulako denboraldia egin dute.

BURUNDA ETA ARALAR KLUBEK SARI KONPARTITUA ESKERTU ZUTEN, BIDELAGUNAK BAITIRA

"Errekonozimendua bat da gure lanari, eta garaipenez aparte, Euskal Herrian sortzen dugun giroa eta jende mugimendua, hori da garrantzitsua. Guk 50 txirrindulari ditugu, Aralarrek beste horrenbeste, hemendik hara ibiltzen gara eta oso pozik gaude. Oso polita da bi taldeoi saria ematea. Konpetizioan ba-koitzak berea egiten du, baina hortik kanpo oso harreman ona dugu eta oso pozik gaude saria konpartitua delako" azaldu zuen Mintegik. Iritzi berdinekoa zen **Aralar Txirrindularitza klubeko** Edi Cerviño entrenatzailea. "Lana ongi egiten saiatzea, eta bertakoek lan horri errekonozimendua egitea ona da. Burundakoekin arerioak gara lasterketetan, baina bidelagunak. Biok sekulako denboraldia egin dugu" aipatu zuen teknikariak. Aralar klubak hurrengo denboraldiari ilusio bereziarekin ekingo diola gaineratu zuen. "Sakana kooperatiba izango da babesle berria. Baileraren izenarekin eta bailarako txirrindulariekin ariko gara" nabarmendu zuen.

Yoseikan budo taldeko Aritz Agirrebengoa eskertuta zegoen. "Oso pozik gaude euskara gehien sustatu duen klubaren sariarengatik. Guk argi izan dugu kirola sustatzeaz aparte, beste balore batzuk sustatu nahi ditugula. Yoseikan budoko klase guztiak euskaraz egiten ditugu eta Euskal Herriko proiektuarekin bat egiten dugu, hau da, Iparraldeko eta Hegoaldeko haurrak batu nahi ditugu, guztiok euskararen baitan. Euskara guretzat ezinbestekoa da, gure identitate zeinua izateaz aparte, Iparraldeko eta Hegoaldeko haurrak elkartzerakoan, talka kultural hori ematen denean, ikusten dutelako euskarak batzen dituela" esan zuen.

Imanol Irurtzun arbitroak kontentu hartu zuen aipamen berezia. "Herrian izanda, hainbeste jenderekin, pozik hartu dut aitortza" adierazi zigan. Orain, 2. B mailara igotzeko azterketak egingo ditu berriro. "Justu atzo izan nituen lehen azterketak; martxoan beste batzuk izango ditut eta espero dut maiatzean Madrilerara joatea" aipatu zigan. Bukatzeko, Arakilgo **Xaniturri elkarteko** emakumeek ere kontentu hartu zuten aipamen berezia. Kirol eta kultur ekitaldiak antolatze-ko lan polita egiten du taldeak.



Aurreko urteko xake txapelketa.

Satrustegik hartuko du Sakanako Xake Txapelketa

XAKEA Bihar jokatu da, larunbatean, 10:00etatik aurrera, Satrustegiko elkartean

Urtero, Gabonak baino lehen, xakearekin hitzordua izaten da Sakanan. Aurten Arakil aldean jokatu da Sakanako Mankomunitateak, Zaldi Beltza Xake taldearen eta Nafarroako Gobernuauren laguntzarekin, antolatutako XIX. Sakanako Xake Txapelketa. Hain zuzen ere, Satrustegiko elkarteak hartuko du aipatu xake txapelketa, bihar, abenduaren 22an, larunbatean, goizeko 10:00etatik aurrera.

XIX. Sakanako Xake Txapelketa izateaz gain, aldi berean Nafarroako Txapelketa izanen da biharkoa, 1.900 ELO puntutik behera. Metodologiari dagokionez, txapelketa 20 minutuko 8 partidara jokatu da. Sariei dagokienez, helduen mailako lehenengo zazpiek saria jasoko dute eta gazteen mailako lehen-dabiziko hirurek.

Aurreko urtean Arbizuko kanpinean jokatu zen txapelketa, eta 16 xakelarik hartu zuten parte. Gazteenak, Oier Lacruz iruindarrak irabazi zuen. Victor Barriga izan zen lehen sakan-darra.

Izena emateko

Txapelketan aritu nahi dutenak 9:30etik aurrera eman beharko dute izena, Satrustegiko elkartean (Prezioa, 5 euro).



Igor Lanz satrustegiara pasa den urteko Etxarriko Txakurkrosean. KARASA

Etxarri Aranazko II. Txakurkrosa, igandean

TXAKURKROSA Etxarriko kanpinean jokatu da proba etzi, hiru modalitateetan, 9:30etik hasita. Bikejoringekoak hasiko dira lehenengo, ondoren patinetakoak eta, azkenik, txakurkrosekoak. Proba Euskadiko Txakurkros Ligarako puntuagarria da

Euskanikross taldeak eta Etxarri Aranazko Xalok kirol, dietika eta nutrizio zentroak antolatuta igandean jokatu da Etxarri Aranazko II. Txakurkrosa, 9:30etik aurrera, Etxarri Aranazko kanpinean. “Aurreko urtean antolatu genuen lehenengo eta jendea gustura geratu zen. Kronometrajearekin izandako akats batzuk izan ezik, ekitaldi polita izan zen eta, aurtent, akats horiek zuzendu eta ekitaldi borobila lortuko dugula espero dugu” adierazi du Euskanikross taldeko kide eta Etxarriko probako antolatzaile Igor Artieda etxarriarrak. Dagoeneko errekonozimendua jaso du probak, Euskadiko Txakurkros Ligarako puntuagarria izango baita.

Hiru modalitate eta 6 km

Modu xumean esanda, txakurrari lotuta korrika egitea, hori da txakurkrosa. Baina hori baino asko ere gehiago da. Izan ere, hainbat modalitate daude: txakurkrosa, txakurrari lotuta korrika egitea; bikejoring, parte-hartzailea bizikletari lotua joatea eta txakurrak bizikletari lotua; eta patina, parte-hartzailea patin baten antzeko batean joatea eta txakurrak patinari lotuta. Eta hain zuzen ere, hiru modalitate hauen lasterketak izanen dira igandean Etxarri Aranatzen. 6 kilometroko ibilbidea dute aurrez aurre hiru modalitateek, baina aldaketak egon daitezke. “Ibilbidearen hasierako eremu bat oso biguna dago, lokatz askorekin eta erreka gaiztoaren batekin. Seguratsunaren aldetik patin eta bizikleta parte-hartzaileengan arazoak sortu ditzake eta larunbatean erabakiko dugu eremu hori beraizendako moldatzea edo ez; bestela, guztiendako ibilbidea bera da” aipatu digu Igor Artieda.

Lehenik eta behin bikejoringekoak abiatuko dira, 9:30ean, segidan patinekoak eta azkenak txakurkrosekoak izango dira.

“Tbilbide teknikoak da. Kanpinetik aterako gara. Ibilbidea Polvorera aldera doa, eta Beheko Basotik, Artxaneko pinudiaren atzealdetik, Haritzen ibilbidea gurutzatzen du eta handik kanpinera doa, Haritzen ibilbidetik. 70 metroko desnibela du, Euskal Herriko Ligako proba lauena da gurea, baina korrika egiteko oso aproposa eta polita da, entrenigarria. Eta paisaia, neguan egonda ere, oso erakargarria da, ederra” gaineratu du etxarriarrak. Duela bizpahiru aste ibilbidea erakusteko topaketa antolatu zuten, eta harrera bikaina izan zuela aipatu digu. “Europa mailako ibilbide polit eta hoberenekin konparatzen du norbaitek. Errebuektak, toboga-

“Tbilbide teknikoak da. Kanpinetik aterako gara. Ibilbidea Polvorera aldera doa, eta Beheko Basotik, Artxaneko pinudiaren atzealdetik, Haritzen ibilbidea gurutzatzen du eta handik kanpinera doa, Haritzen ibilbidetik. 70 metroko desnibela du, Euskal Herriko Ligako proba lauena da gurea, baina korrika egiteko oso aproposa eta polita da, entrenigarria. Eta paisaia, neguan egonda ere, oso erakargarria da, ederra” gaineratu du etxarriarrak. Duela bizpahiru aste ibilbidea erakusteko topaketa antolatu zuten, eta harrera bikaina izan zuela aipatu digu. “Europa mailako ibilbide polit eta hoberenekin konparatzen du norbaitek. Errebuektak, toboga-

"SAKANDARRAK ANIMA DAITEZELA ETORTZERA, IKUSKIZUN EDER HONETAZ GOZATZERA"

nak, errekatxo eta putzuak... denetarik du eta jendeari asko gustatu zitzaion” azaldu du.

100 parte-hartzaile inguru espero dira

Antolatzaileek aurreko urteko parte-hartzea, 70 kideena mantendu eta igotzea espero dute. “Ehundik pasatzea espero dugu, baina iazkoa errepikatzearekin kontentu geundeko” aipatu du Artieda. Munduko txapeldunen bat eta Europako txapeldunen bat gerturatuko omen dela esan digu. Sakandarrei dagokienez, Igor Artieda ez da txakurkrosean arituko, antolakuntzan ibiliko baita, baina Juan Bautista Urtasun urdiaindarra eta Igor Lanz satrustegiara bizikletan lehiatuko direla espero da. Aurreko urtean, Urtasun bigarrena sailkatu zen patinetan eta Igor Lanz seigarrena bikejoringean.

Ikuskizun bikaina

Igandean proba jarraitzera joateko gonbita egin du Artieda. “Espektakulu hutsa da ikustea txakurrak eta kirolariak nola lortzen duten “taldea” sortzea, elkarrekin erritmo hori lortzea. Eta zer esanik ez bikejoringa eta patinak, sekulako abiadura lortzen dute. Baldintza onekin, lehor balego, 15 minututik behera egingo zituzten 6 kilometroak. Sakandar guztiei igandean Etxarriko kanpinera gerturatzeko deia egiten diet, elurreko mushing delakotik sortutako diziplina honetaz gozatzer; animatu daitezela goiz pasa polita egitera”.

Bukaeran auzate ederra egonen da, eta sari ematea Etxarriko kanpinean egingo dute aurtent. Ohiko trofeo eta dominez gain, babesleek emandako sariak lortuko dituzte txapeldunek: txakurrendako pentsua, txakurrendako haragia, Lacturale esnea...

Antolakuntzan 30 pertsona inguru ibiliko dira lanean. Ibilbidean barna egongo dira, lasterketa hasi baino lehen txakurrek pasa beharreko albatari kontrolean laguntzen, kirolarien eta txakurren materiala ikuskatzen, dortsalak banatzen, anoa puntua prestatzen, hesiak jarri eta kentzen... izan ere, proba hauen atzetik lan itzela baitago.

Izena ematea

Proban aritzeko izena ematea gaur despedituko da, ostiralean, 12:00etan, www.sailkapenak.com web orrian.

SAKANAKO TOPAKETAK

PARTIDUAK

IGANDEAN KIMUAK ALTSASUN

11:00 Etxarri 1 - Etxarri A

12:00 Urdiain - Lagun Artea 08

12:00 Lagun Artea 07 - Tipi Tapa

Sakanako Futbol Topaketak:

kimuen 6. jardunaldia etzi Altsasun

Asteburu honetan Sakanako Futbol Topaketen kimuen mailako 6. jardunaldia jokatu da Dantzalekun. .

Sakanako Futbol Topaketak Mank-ek antolatzen ditu, Sakanako futbol klub eta taldeen laguntzarekin. Futbola sustatzea da helburua, eta txikienei txapelketa batean parte-hartzea ahalbideratu nahi zaie, baina ez da txapelketa lehiakorra eta, horregatik, ez da sailkapenik egiten. Sakanako beste herrietako neska-mutikoei futboleko arituz ongi pasatzea da asmoa, euren arteko harremana sustatzea.

PILOTA Aldabide eta Irurtzun finaletan murgilduta

Nafar Kirol Jolasetako finalak jokatu dira egunotan Labrit pilotalekuan. Gaur, ostiralean, 18:00etan Binakako 2. mailako kadeteen finala jokatu dute Aldabide B taldekoek Erreka A taldekoen kontra. Igandean, 10:00etan, Nafarroako Klubaren Arteko 22 urtez azpiko Binakako finalean Irurtzunek Umore Ona izango du aurkari.

SASKIBALOA CBASK-ek galdu egin zuen Arangurenen kontra

Autonomia Arteko 2. mailan 10. jardunaldia jokatu zen asteburuan, eta larunbatean CBASK Altsasuk Aranguren Mutilbasket taldea hartu zuen Zelandin. Partida oso estua izan zen baina CBASK-ek ezin izan zuen garai-pena ospatu. Azkenean, 10 puntuko aldearekin, 49 eta 59 galdu zuten altsasuarrek.

Autonomia Arteko 2. mailako lider jarraitzen du CB Cenicero La Alcohola taldeak (18 puntu). Galdu arren, CBASK-ek 6. postuari eutsi dio (13 puntu). Igandean sailkapenean 7.a den Fonseca Liceo Monjardinen kontra ariko da CBASK, 17:00etan, Liceon, eta ondoren Gabonetako oporren atsedendia dator.

Zabaleta gaur, Ezkurdia bihar eta 25ean Martija

PILOTA Eskuz Binakako 4. jardunaldia jokatu dute gure pilotariek egunotan. Bina puntu dituzte Irribarria-Zabaletak, Altuna III.a-Martijak eta Ezkurdia-Galarzak. Sailkapena estu dagoenez, urrezko puntuak dira jokoan daudenak

Binakako hasierako ligaxkako sailkapena estu-estu dago, ez dago alde handirik puntuazioan. Elezkano II.a-Rezustak eta Olai-zola II.a-Albisuk 3 puntu dituzte, Irribarria-Zabaletak, Altuna III.a-Martijak, Artola-Mariezku-rrenak eta Ezkurdia-Ladis Galarzak 2 puntu eta Bengoetxea VI.a-Imazek eta Urrutikoetxea-Aretxabaletak puntu bana. Beraz, zabal-zabalik dago txapelketa.

Aurrekoa

Azkeneko jardunaldian primeran ibili ziren Zabaleta eta Ezkurdia. Etxarrengo atzelariak eta Irribarriak 6 tantotan utzi zituzten Artola eta Mariezkurrena II.a, partida bikainean, eta Joseba Ezkurdiak errezitaldi bikaina eskaini zuen Labriten; sorpresa ederra eman zuten arbizuarrak eta Galarzak, eta 22 eta 13 irabazi zieten Olai-zolari eta Albisuri. Aldiz, Julen Martijak eta Altuna III.ak urrezko puntua ihes egiten utzi zuten. Ongi hasi ziren Urrutikoetxearen eta Larunberen kontra, 13 eta 6 aurreratu ziren, baina Asegarcetxeok partidari buelta eman zioten eta 20 eta 22 irabazi zuten. Martijak maila oso ona eman zuen, baina Altuna oso irregular aritu zen eta bigarren porrota jarraian pilatu zuen bikoak.



Zabaletak eta Irribarriak gaur jokatu dute. ASPE

Horrela, datozen jardunaldietan asko dute jokoan gure pilotariek. Gaur, ostiralean, Irribarriak eta Zabaletak Urrutikoetxea eta Aretxabaleta izango dituzte arerio Lekeition; bihar, Arrasaten, Ezkurdia eta Galarza Bengoetxea VI.a-aren eta Imazen kontra lehiatuko dira; igandean Olai-zola II.ak eta Albisuk Elezkano II.a-aren eta Rezustaren aurka jokatu dute Bilbon, eta asteartean, Gabon egunean, Altuna III.ak eta Martijak Artola eta Mariezkurrena izango dituzte aurkari.

Osasuna Magna lehen mailako bosgarren postura igo da

ARETO FUTBOLA Levanteren kontra irabazi eta gero, bihar Peñiscolaren kontra ariko da talde berdea

Larunbatean Levanteren kontra garaipen garrantzitsua lortu zuen Osasuna Magnak. Dani Saldisek (2) eta Rafa Usinek sartutako golei esker, 2 eta 3 irabazi zuen talde berdeak. "Garaipen oso garrantzitsua da.

Baja garrantzitsuak izan ditugu baina taldeak ahultasun egoeretatik indarra ateratzen du beti, eta partida ona egin dugu" azaldu zuen Imanol Arregik.

Lehen itzulia despidituta, El Pozo Murcia da lehen mailako

Promesetan Bakaikoa

Asteazkenean aurkeztu zuten, Bilboko Bizkaia pilotalekuan, Promesen mailako Binakakoa. 8 bikote lehiatuko dira, eta Joanes Bakaikoa izango da sakan-dar bakarra; etxarriarrak Urretabizkaia II.a-ekin osatuko du bikoak. Ilbeltzaren 4an sartuko dira lehian, Bergaran, Alberdiren eta Erasunen kontra. Hona-koak dira gainontzeko bikoak: Elordi-O.Etxebarria, P.Etxeberria-Garmendia, Dario-Ruiz, Ugalde-Tolosa, Peña II.a-Aranguren eta Agirre-Salaberri.

lider berria (35 puntu), Barcelona Lassa bigarrenarekin puntutara berdinduta. Osasuna Magna bosgarren postura igo da (27 puntu) eta bihar, larunbatean, sailkapenean 8.a den Peñiscolaren kontra jokatu dute talde nafarrak, 13:15ean, Peñiscolan. Hurrengo jardunaldia ilbeltzaren 5ean izanen dute, Anaitasunan, Jaen taldearen kontra. Bestalde, Espainiako Kopako zozketan, final laurdenetan Peñiscolarekin aritzea tokatu zaio talde berdeari.

FUTBOL PREFERENTEA

13. JARDUNALDIKO EMAITZA

Itaroa Huarte - Etxarri Aranatz 4-3

SAILKAPENA

PREFERENTEKO 1. MULTZOA

1 Lagunak 23

7 Etxarri Aranatz 19

PARTIDUA

IGANDEAN LIGAKO PARTIDA

15:45 Etxarri - Pamplona B (San Donato)

Etxarri zazpigarrena da

Itaroaren kontra 0 eta 2 aurreratu zen Etxarri (Goikoetxea eta Fernandez). Itaroa Huarte 3 eta 2 aurreratu zen, baina hirura berdindu zuen Etxarri (Iriarte). Azken minutuan Itaroak garaipenaren gola sartu zuen eta punturik gabe geratu zen Etxarri.

FUTBOL ERREGIONALA

14. JARDUNALDIKO EMAITZAK

Lagun Artea - Iruña B 4-2

Altsasu - Ardoi B 0-0

SAILKAPENA

ERREGIONALEKO 1. MULTZOA

1 Lagun Artea 32

4 Altsasu 24

PARTIDUAK

LARUNBATEAN

16:00 Salesianos - Altsasu (Amigó)

IGANDEAN

16:00 Ardoi - Lagun Artea (Zizur)

Lagunek irabazi eta Altsasuk berdindu

Lagun Arteak hasieratik kontrolatu zuen Iruña B taldearen kontrako partida. Burilok (2), Zubiriak eta Unanuak sartutako golei esker, 4 eta 2 irabazi zuten lakuntzarrek. Dantzalekun, aldiz, husnako berdinketarekin despiditu zen Altsasuren eta Ardoiren arteko partida. Ongi hasi zen Altsasu, gol aukerak izan zituen, baina ez zituen aprobetxatu.

EMAKUM. ERREGIONALA

14. JARDUNALDIKO EMAITZA

Altsasu - Peña Sport 1-2

SAILKAPENA

EMAK. ERREGIONALEKO 1. MULTZOA

1 Lagunak 40

12 Altsasu 13

PARTIDUAK

LARUNBATEAN

15:30 Castejon - Altsasu (Castejon)

Castejoneko ariko da Altsasu

Azken bi partidak galdu eta gero, sailkapenean hamabigarrenak dira Altsasuko neskek. Bihar, larunbatean, sailkapenean zortzigarrena den Castejon taldearen kontra ariko dira, eta ea egoerari buelta ematen dioten.

Sakanako Nesken Pala Txapelketan, finalerdiak

PALA Finalerdiak Etxarri Aranazko frontoian jokatu dira, bihar eta igandean

Abenduaren lehenean hasi zen XIV. Gure Pilota Sakanako Nesken Pala Txapelketa. Guztira 33 bikote lehiatu dira, bi maila nagusitan banatuta: helduak (1. maila eta 2. maila) eta gaztetxoak, ondoko mailetan: txitoak, katarriyek, usoak, pottokak eta tximeletak. Sakanako Mankomunitateak antolatzen du txapelketa, Etxarri Aranazko Gure Pilota klubaren, Nafarroako Gobernuaren eta ibarreko hainbat udalen laguntzarekin.

Irurtzunen, Olaztin eta Altsasun jokatuak jardunaldien ondoren, biko onenek asteburu honetan jokatu dituzte finalerdikoak, Etxarri Aranatzen. Larunbatean, 16:30ean, Tximeleta mailako eta 2. mailako finalerdiak erabakiko dira, eta igandean, 11:00etatik aurrera, lehen mailakoak. Txapelketako final handiak Etxarri Aranatzen jokatu dira, abenduaren 29an eta 30ean.

Txapelketako finalerdiak

Etxarri Aranatzen jokatu dira finalerdiak.

Abenduak 22, larunbata, 16:30ean:

- **Tximeletak:**
Elai-Izaro / Uxue-Narrea
Lidia-Maitena / Iraia-Ane
- **2. maila:**
Olaia-Maider / Irati-Leire
Nahia-Aroa / Amaia-Paula

Abenduak 23, igandea, 11:00etan:

- **1. maila:**
Amaia-Maider / Yanira-Maite
Ane-leire 7 Irati-Maider M.

PILOTA II. Olaztiko Frontenis Txapelketa: finalak gaur jokoan

Sutegi taldeak eta Barandi tabernak antolatutako II. Olaztiko Frontenis Txapelketako irabazleak nor diren gaur jakingo dugu. Ostiralean, 19:00etan, 3. eta 4. postuak erabakitzeko partida jokatu dute Nikok eta Badosek Camuelen eta Eloyren kontra, eta, ondoren, 20:00etan, Mitxelek eta Alejok Imanol eta Mikel izango dituzte aurkari finalean.



Ekhi Congil.

MONOZIKLISMOA Ekhi Congilen tailerra Etxarri Aranatzen

Ekhi Congilek monoziklo tailerra eskainiko du abenduaren 22tik 29ra Etxarri Aranatzen. 6 pertsonen osatutako taldeak izanen dira gehienez, eta hiru ordutegi daude: 18:00etatik 19:00etara, 19:00etatik 20:00etara eta 20:00etatik 21:00etara. Prezioa: 30 euro (628 947 257, Ekhi). Adin guztietarako tailerra izango da, behar den guztia kaskoa eta ikasteko gogoa dela dio Congilek.

2019ko Movistar Team

TXIRRINDULARITZA 2019ko emakumezkoen eta gizonezkoen Movistar Team taldeak aurkeztu dituzte. Gizonezkoetan, Imanol Erbitik bere 15. denboraldia egingo du profesional mailan, guztiak talde berean, eta Jose Luis Arrieta uhartearrak zuzendaritzan jarraituko du. Mikel Landa, Alejandro Valverde eta Nairo Quintana dira taldeburuak.



Azkeneko edizioan 144 txirrindularik hartu zuten parte Altsasuko San Silbestre Zikloturista Martxan.

Denboraldiko azken pedalkadak Urbasara

TXIRRINDULARITZA XXXVI. San Silbestre Zikloturista Martxarako izena ematea zabalik dago www.sdalsasua.com web orrian. Izena ematean bi aukera daude: 10 euro edo 20 euro, Conservas del Reynoko saskiarekin

Urteko azken egunean bizikleta buelta egitea urtea despeditzeko beste modu bat da eta Sociedad Deportiva Alsasua (SDA) oso ongi dakite hori. Aurten 36. edizioa izango du San Silvestre Zikloturista Martxak eta abenduaren 31ko 12:00etan abiatuko dira txirrindulariak Altsasuko Zumalakarregi plazatik.

Izan ere, Sociedad Deportiva taberna itxi zenetik beste aukera batzuk bilatu behar izan dituzte antolatzaileek. "Festetako afizionatuen txirrindularitza lasterketako gunea JJ taberna izan zen, San Silvestreko zikloturistako gunea Txalaparta taberna izango da eta txirrindularitza Ramos Trofeoko topa-

gunea, aldiz, Akelarre taberna" azaldu digu SDAko txirrindularitza ataleko arduradun Felix Mazkiaranek.

XXVI. San Silbestre Zikloturista Martxarako izena ematea zabalik dago, www.sdalsasua.com web orrian. Bestela, probaren egunean bertan egin daiteke, Txalaparta tabernan. Inskripzioa osatzerakoan bi aukera daude. "10 euro ordaintzea, inskripzio normala, edo 20 euro ordaintzea eta Conservas del Reynoko Gabonetako lote ederra jasotzea" azaldu du Mazkiaranek.

Martxari dagokionez, eguerdian Zumalakarregi plazatik aterako dira, Olaztiraino taldean joango dira eta gero, Urbasaraino igo-

ko dira. Proba ez lehiakorra da, berez, baina lehia polita izaten da. Goian, Urbasa gainean, guztiek salda beroa izango dute zain. Gero, Txalapartan, dortsala uzterakoan oroigarria jasoko dute txirrindulariek eta eskutakota lotea.

Goizez, askoz hobe

Proba arratsaldetik eguerdira aldatu zutenetik, parte-hartzeak gora egin duela nabarmendu du Mazkiaranek. "Orain egun osoan giro polita egoten da, goizean txirrindulariak eta arratsaldean korrikalariak". Iaz 144 txirrindulari aritu ziren, aurreko edizioan baino 39 gehiago, eta Jon Zeberio izan zen azkarrena.



MOVISTAR TEAM



Aurreko urteko Altsasuko San Silvestrea eurpean jokatu zen. Aurten lasterketaren 40. urteurrena ospatuko dute.

Agur 2018, korrika!

ATLETISMOA Altsasuko San Silvestreak 40 urte beteko ditu eta urte hauetan joandakoak izanen dituzte oroimenean aurtengo edizioan. Bestalde, 16. Olaztiko Lasterketa eta Irurtzongo II. Pikubestrea jokatu dira urteko azken egunean

Abenduaren 31n zapatilak jantzi eta 2018. urtea korrikan despedituko dute sakandar askok, gurean eta guretik kanpo antolatuko diren San Silvestre lasterketetan. Probarik kuttunenak dira hauek korrikalari gehienendako. Sakanan hiru lasterketa izango dira. Altsasuko San Silbestreak 40. edizioa beteko du aurten. Nafarroako proba zaharrena denak data borobila ospatuko du, beraz, aurten: 40 urte. Olaztiko San Silbestreak, aldiz, 17. edizioa izanen du eta II. Pikubestre lasterketa antolatu du Irurtzunen Pikuxarrek.

Altsasun, 40 urte hauetan joandakoak eta emakumeak gogoan

Dantzaleku Sakana klubak eta Sakana Triatloi Taldeak antolatuta, aurten 40. edizioa beteko du Nafarroako proba beterranoena denak, data borobila. Aipatu proba, Mario Lopez de Uralde Memoriala izendatu zuten, bertan 17 urtez gailendu zen korrikalari altsasuarraren omenez. Eta hain zuzen ere, bera eta 40 urte luze hauetan Dantzaleku Sakana klubeko korrikalari eta bazkide izan direnak omenduko dituzte aurtengo lasterketan: Juan Jose Igual, Hodei Iturrioz, Esteban Martinez, Iker Borrega, Daniel Ziordia, Goizeder Azaze-

ta, Javier Martirena eta Mario Lopez de Uralde.

Altsasuko Lagun Onak elkar-tea hasi zen San Silvestrea antolatzen. 25 urtez antolatu zuen proba, eta ondoren Dantzaleku Sakana klubak eta Sakana Triatloi taldeak hartu zuten ardura. Zendutako kideez gain, 40 urte hauetan emakumezkoen lasterketa irabazi duten lau altsasuarrei ere errekonozimendua eginen diete: Silvia Zulet (1986an irabazi zuen), Loli Mendoza (1987an), Marijo Arza (2000n) eta Jone Pelaez (2009an).

“40 urte beteko ditu gure probak, data borobila, eta pentsatzen dugu polita dela atzera egitea eta gurekin ez daudenekin gogoratzea, baita gailendu diren emakumei errekonozimendua egitea. Bestalde, duela 40 urte, lehenengo lasterketa horietan aritu zirenei deialdia egin nahi diegu, ea aurtengo proban ateratzera animatzen diren” aipatu digu lehengo proba hartan parte hartu eta Dantzaleku Sakanako kidea den Peio Bergarak.

Haurrak 18:00etan eta helduak 19:00etan

Abenduaren 31n, astelehenarekin, arratsaldeko 18:00etan emanen zaio hasiera Altsasuko San Silvestreari, gaztetxoenen lasterketarekin. Aurrebenjaminak

(400 m), benjaminak (800 m) eta kimuak (1.200 m) ariko dira, plaza inguruetan. Haurren kategoriakoek helduen proban parte hartuko dute, euren kasuan zirkuituari buelta bat emanez. Ondoren, helduen proba guztia osatu nahi badute, aurrera jarraitu dezakete.

Kadeteak, jubenilak, seniorrak eta beterranoak 19:00etan udal-tertxe aurretik abiatuko den proba nagusian ariko dira (5 km). Korrikalariak Altsasun barna prestatutako zirkuituari hiru buelta eman beharko dizkiote. Aurreko urteko ibilbide bera da aurtengoa, eta soilik lehendabiziko hiruren denborak hartuko ditu antolakuntzak. Probako irabazleek txapela jantziko dute eta lehendabiziko hirurek produktu sorta ederra jasoko dute. Katetaria txikiagoetan, lehendabiziko hirurek domina jasoko dute eta guztiek edatekoa. Helduen proba despedituta salda beroa banatuko da guztiendako.

Aurreko urtean 453 korrikalari parte hartu zuten San Silbestrean, 377 proba nagusian eta 76 txikietan. Altsasuko Sergio Garcia de Eulate eta Olaztiko Izaskun Beunza gailendu ziren beste behin. Antolatzaileek aurten ere urtea korrikan despeditzera animatu dute, primerako giroa izaten baita.

Izena ematea dohainik da, eta aurretik egin daiteke, www.dantzalekuksakana.com web orrian. Bestela, egunean bertan eman daiteke izena, 18:30ak arte.

Olaztiko San Silvestrean lau lasterketa

San Silbestre lasterketaren 16. edizioa jokatu da urteko azken egunean Olatzagutian, 18:00etatik aurrera, Sutegi elkarteak antolatuta. 16:30ean zabalduko da izena ematea, Olaztiko frontoian.

Urtero moduan, 4 kategorien-dako lasterketak antolatu dituzte: txikiak, 7 urtera artekoak (300 m), 8-11 urte bitartekoak (600 m), 12-15 urte artekoak (zirkuituari itzuli bat, 1.240 m) eta helduak, 16 urtetik gorakoak. Kasu honetan herri gunean antolatutako zirkuituari 4 bira eman beharko diete korrikalariak, 5 km inguru osatzeko, 19:00ak aldera abiatuko den lasterketan. Probak frontoia izango du irteera eta helmuga, eta giro ederra sortzen da bertan. Bukaeran, irabazleek trofeoak jasoko dituzte eta parte-hartzaileek oroigarriak.

II. Pikubestrea Irurtzunen

Irurtzongo Pikuxar Euskal Txokoak, Piku Gabonak egitarauaren barruan antolatuta, herri lasterketa antolatu dute San Silvestre egunerako, II. Pikubestrea, hain zuzen. Gernika plazatik abiatuta, 16:30ean haurrak ariko dira -6 urte bitartekoak 150 metroko proba izanen dute eta 6 eta 14 urte artekoak 300 metroko proba- eta 17:00etan, aldiz, helduak (4,2 km). Herrian barna zirkuitu polita antolatu dute Pikuxarrekoek, korrikalariak behin eta berriz animatu ahal izateko.

Irurtzongo proban aritzeko 14 urtetik gorakoak 2 euro ordaindu beharko dituzte, eta hortik beherakoak, aldiz, dohainik dute parte-hartzea. Bukaeran, korrikalari guztien artean opari ederak zozketatuko ditu antolakuntzak. Urteari kirola egiten eta festa giroan agur esateko aukera ezin hobea da Pikubestre, eta bertan aritzera animatu dituzte herritar guztiak.

Izena ematea zabalik dago honako helbidean, abenduaren 30era arte: <http://xurl.es/PikubestreInscrip>. Bestela, probaren egunean bertan izena emateko aukera egonen da.



Garikoitz Flores, podiumean. UTZITAKOA

Garikoitz Flores azkarrena Erauskinen

AUTOMOBILISMOA Pilotu lakuntzarrak irabazi zuen Beasaingo proba; Mikel Mendinueta 21.a izan zen

Beasaingo motor asteburua ospatu da asteburuan. Motorrari lotutako makina bat ekitaldi izan dira bertan, tartean Albert Llovera pilotu ezagunaren hitzaldi arrakastatsua, ibilgailu klasikoaren erakusketa, umeendako bide heziketa, trial ikuskizuna, segurtasunez gidatzeko ikastaroak eta V. Erauskin Igogera, Beasain herri gunetik Erauskin auzora 2,5 km-ko ibilbide aldatatsua, 20 bihurtune dituen. 34 pilotuk parte hartu zuten proban eta horietatik 32 sailkatu ziren.

BRC BR-53 barketa

Garikoitz Flores pilotu lakuntzarra izan zen probako txapeldun absolutua, eta bere mailako, monoplasen mailako, txapeldu-na (1:36.813). Lakuntzarra BRC BR-53 barketarekin aritu zen proban eta Asier Bidabururi (Reynard R10B, 1:40.117) gailendu zitzaion. Joseba Iraola Seat Leon Supercopa autoarekin lehiatu zen eta hirugarrena sailkatu zen maila absolutuan (1:41.885), bere mailan, turismoen mailan, lehena. Proban aritu zen beste sakandarra Mikel Mendinueta arbizarra izan zen (Peugeot 205 GTI). Sailkapen orokorrean 21. postua lortu zuen Mendinueta (1:56.195).

"Presoen eskubideak azaleratu nahi ditugu"

MIKEL MUNDIÑANO "ZATO" NAFARROAKO SAREREN ARDURADUNA

'Zama doinuz arindu' jaialdiak laugarren urtez musikari ospetsuak ekarriko ditu Etxarri Aranatzera. Ilbeltzaren 13an izanen da kontzertua, 17:00etan eta 19:30ean

E. Carreño / E. Ruiz ETXARRI ARANATZ
Ilbeltzaren 13an, igandea, *Zama doinuz arindu* jaialdiaren laugarren edizioa egingen da Etxarri Aranazko kultur etxean. Euskal preso, iheslari eta deportatuen eskubideen aldarrikapena egiten du jaialdiak. Bi emanaldi egonen dira: 17:00etan eta 19:30ean. Sarrerak dagoeneko salgai daude Etxarri Aranazko udalaren webgunean, kultur bulegoan 09:00etatik 13:00etara eta Xapatero eta Leku Ona tabernetan. 15 euroko prezioa dute eta Mikel Mundiñano "Zato" jaialdiaren antolatzailearen esanetan, "azkar amaitzen dira, beraz, argi ibili".

'Zama doinuz arindu' jaialdia. Zer da?

Duela lau urte ekimen eta dinamika honekin hasi ginen. Eta hemen gaude lau urte ondoren laugarren edizioa ospatzeko asmotan. Duela lau urte ekimen hau elkartasun jaialdi moduan planteatu genuen. Sareren egitekoa preso eta iheslari eta deportatuen eskubideen aldarrikapena kaleratzea da, eta tesuinguru horretan kokatzen dugu jaialdia. Momentu honetan espetxe politikak urratzen dituen eskubideak agerian utzi nahi dituen ekimen bat da. Beste hainbat ekimen bezala. Baina kasu honetan musikaz lagunduta. Hau da, musikaz eta doinuz adiera nahi dugu eskubide urraketa hauekin amaitzeko beharra. **Lau urte pasa dira, beraz, lehenengo jaialdi horretatik.**

Duela lau urte mahai gainean jarri genuen, bai. Aukera ezberdinak aztertzen hasi ginen eta, begira, lau urte pasa dira. Hemendik, Etxarri Aranatzetik, *Zama doinuz arindu* jaialditik hogeita bost abeslari ezagun pasa dira. Eta laugarren edizio honetan ere jende ezaguna etorriko da. Ikuskizun eta jaialdi txukun bat da.

Erronka bat izan behar da horrelako kontzertu bat antolatzea.



2017ko 'Zama doinuz arindu' jaialdiaren une bat. ARTXIBOA

Ez da erraza horrelako zerbait antolatzea. Baina ikusten da etorri direnak ere bere alea jartzen ari direla. Guk hasiera batean planteatu genuen jaialdi honek hein handi batean Etxarri Aranazko presoen senideen zama arindu nahi zuen. Esku zabalik hartu zuten musikariek eskaera; baiezkoa esan zutenak eta ezezkoa eman zutenak ere, izan ere, ekimena asko gustatu zitzairen ekimena, baina gauza batengatik edo besteagatik ezin izan zuten egon. Alde horretatik oso kontentu gaude herri mailako formatuan egin dugulako jaialdi ederra. Abeslari ezagunak herri mailako jaialdi batera etortzea eta haien elkartasuna adierazi dute Etxarri bezalako herri txiki batean.

Badago Euskal Herrian horrelako formatua duen beste jaialdirik?

Euskal Herri osoan astebururo dauzkagu presoen eskubideen aldeko ekimenak. Agenda hartu besterik ez dago ikusteko egunero eta astebururo presoen eskubideen aldeko dinamika asko egiten direla ikusteko. Antzeko formatuarekin egiten dira. Guk daukagun berezitasuna da urtero egiten dugun dinamika

bat dela eta urtero saiatzen gara gai zehatz bat plazaratzen. Eskubide urraketa mahai gainean jartzen dugu, baina urtero bati indarra ematen diogu.

Zeintzuk dira urratzen diren eskubide horiek?

Pasa den urtean motxiladun umeak landu genituen. Duela bi urte korapiloak askatzeko mezu horrekin soka irudikatu nahi izan genuen eta lehendabiziko urtean dispartzioaren inguruan urrunketaren inguruan landu genuen.

Bi emanaldi egingo dituzue.

Bi emanaldi egingo ditugu horrelako jaialdi bat antolatzeak esfortzu handia suposatzen duelako eta, orduan, behin egiten dela ahalik eta jende gehien iristea da helburua. Etxarriko kultur etxea xarma handia duen kultur etxea da, baina txiki gelditzen zitzaigun, hortaz, bi emanaldi egitea erabaki genuen.

Abeslari ospetsuak egongo dira, berriz ere.

Aurtengoak Juantxo Arakama eta Lil Martin Selettah, Fermin Muguruza eta Mugu-Arri, Joseñue eta Uxue; Juanpa, Xanet eta Xabik Koban, Pantxo Carrere, Afu, Exprai eta Itziar Ituño dira.



Eskulturaren aurpegi berria

Altsasu den guztia irudikatzen duen Jose Ulibarrenaren eskultura plazara itzuli da. Elur Ulibarrena eskulturaren eraberritze proiektuaren zuzendaria izan da. Udan hasi zituzten hainbat boluntariok eraberritze lanak eta azaroaren hasieran plazatik eraman zuten prozesuaren hurrengo urratsa leku itxi batean egin behar zutelako.

URTARRILAK 13

Bi emanaldi 17:00 eta 19:30 IGANDEA
Etxarri Aranatz Kultur Etxean

| Juantxo Arakama (Glaukoma) eta Lil Martin Selettah

| Fermin Muguruza eta Magu-Arri (Des-kontrol)

| Josune eta Uxue (Huntza)

| Juanpa, Xanet eta Xabi (Akellarre)

| Koban

| Pantxo Carrere

| Afu

| Exprai Marrazkilaria

| Itziar Ituño

Sarrera 15€

On-line: www.etxarriaranatz.eus web gunean Etxarri Aranazko Leku Ona eta Xapatero tabernetan eta Etxarri Aranazko Udaleko kultura bulegoan (astelehenetik ostiralera 09:00 - 13:00)

Sarrerak aldeaz aurretik

Antolatzaileak: Etxarri SARE eta Etxarri Sende etalagunak

Laguntzaileak: **naiz: ahotsa**



Trasteando taldea. UTZITAKOA

Trasteando taldearen elkartasunezko musika

Trasteando taldeak elkartasunezko kontzertua eskainiko du abenduaren 29an, lortia, 19:30ean eta 22:00etan.

ALTSASU

Trasteandoren ibilbidean ohi-koak dira elkartasunezko kontzertuak. Urtero bat egiten dutela adierazi du Ainhoa Mundiñano taldeko kideak. Aurten *Cantos con encanto* kontzertuaren sarrerekin lortutakoa Madre Coraje elkarterako izanen da. Bi emanaldi egin behar izan dute lehenengoa "oso azkar" bete zelako. Hortaz, abenduaren 29an, larunbatean, 19:30ean eta 22:00etan egingen ditu kontzertuak Trasteando taldeak.

Trasteando taldea 17 lagunek osatzen dute, baina "bi edo hiru

pertsona" laguntzen die tronpetak eta bestelako instrumentuak jotzen. Musika herrikoia jotzen dute: Altsasuko abestiak, rantxerak, mexikarrak eta abar. *Cantos con encanto* ikuskizuneko kanta berriak prestatu dituztela esan du Mundiñanok: "ia abesti guztiak berriak dira. Kontzerturako prestatu ditugu".

Kontzertu bat baino gehiago bada Trasteando taldeak egingen duena: irabazi guztiak Madre Coraje elkarterako izanen dira. Mozambiken ur proiektu bat egingen du elkarteak: iturriak eta ur korrontea jarri, bestak beste.



UTZITAKOA

Idazle sakandarrak sarituak

Nerea Balda irurtzundarrak irabazi ditu Egile Berrientzako Euskarazko Literatur Lehiaketako narrazio laburreko eta olerkiko lehenengo sariak. Izaskun Etxeberria altsasuarrak narrazio laburren bigarren saria irabazi du eta Joxe Aldasoro etxarriarrak aipamen berezia jaso zuen narrazio laburrean. Iruñeko Udalak antolatzen du literatura lehiaketa.

Etorkizuna egin zuen dantza eskola

25. urteurrena ospatu du aurten Etorkizuna dantza eskola eta urtea merezi bezala amaitzeko eta urteurrenaren amaierako emanaldia egingen du abenduaren 23an, igandean, frontoian, 18:30ean

Guraso talde batek sortu zuen 1993. urtean Etorkizuna dantza eskola. Hutsune handia omen zegoen euskal dantzen ikaskuntzan eta Juan Pablo Urizar txistularia dena mugitzen hasi zen, Iñaki Agirre Etorkizuna dantza eskolako irakasleak esan bezala. Bi irakasle izan zizren hasieran: Jesus Mari Garate eta Anable Beramendi. Haiek eman zituzten lehenengo urratsak. Sorreraren 25. urteurrena ospatzeko urtea izan da aurtengoa, eta ospakizunekin amaitzeko emanaldi berezia egingen dute igandean, abenduaren 23an, frontoian, 18:30ean. Sarrerak Iortian salgai daude, 6 eurotan.

Hasiera xumea izan zela uste badu ere, gaur egun 100 ikasle baino gehiago ditu Etorkizuna dantza eskolak. Gaienera, Sakana ia osoko ikasleak daude: "Etxarri Aranazkoak, Ziordikoak, Urdiaingoak... Lakuntzan talde bat dago eta Irurztunen ere. Baina Altsasuko ingurukoak ia denak daude ordezkaturak". Garaiaren arabera ere bada, Agirrerren esaneta: "badira urteak jende gehiagok izena ematen duela eta beste batzuetan gutxiago".

Urte berezia izan da 2018 urtea. 25 urte ez direlako urtero betetzen. Beraz, emanaldi bereziak antolatu ditu ere Etorkizunak.

"Ikasturte hasieran argazki erakusketa bat egin nahi genuen, emanaldien bideoen emanaldia eta jantzien erakusketa. Eta egin genuen".

Urteurrena despeditzeko igandean emanaldi berezia egingen dute frontoian. "Ikusleria kontuan izan dugu, izan ere, Iortian sartzen den jende kopurua mugatua da. Txiki gelditzen zen". Frontoian 600 ikus-entzuleendako lekua izanen da. Gainera, 40 bat dantzari egonen dira batera.

Oraingo dantzariak eta aurretik egondakoak ere elkartuko dira emanaldian. "Mezua zabaldu genuen", eta talde bat animatu zen.



BAZTERRETIK

KATRIN GINEA MUNDIÑANO

Kafe bat Mumbayn

Gaurkoan liburu batekin noa, ez dakit liburu gustatu zaidan edo idazlearen bizitzeko pasioa.

Amin Sheikh Mumbay hiriko gazte bat da, ni baino 5 egun gazteagoa. Gaur egun ez da hain gaztea, baina liburuan bere txikitako bizitza kontatzen du. Bizitza gogorra. Baina bizitzeko grina are handiagoa.

Amin bere etxetik hainbatetan ihesean joan den mutila da. Indian bizitza ez da erraza. Txiki-txikitatiki lanera beharturik, etxean makila sarritan ezagutzen dutena. Aminek nahiago zuen kalean aske bizi, etxean preso baino. Baina ez dakit non zen askeago, kalean hala etxean.

Kalean makina bat istorio bizitakoa. Jipoiak, lapurretak, zakarretako soberak jan, makina



bat bortxaketa... Uffff... A zein historia gogorra...

Baina historia gogor honen atzean bada esperantza historia bat. Liburu hau nire eskuetara iritsi baldin bada Aminen bizitzeko gogoak beldurrak baino handiagoak zirelako izango da. Ametsak egia bihurtzen diren seinale eta Aminek amets askoren artean bi behintzat bete ditu: bere bizitzaren biografia bat idatzi eta Bombay to Barcelona library cafe-a.

Amin ezagutzeko aukera izan nuen aurrekoan, eta

berak idatzitako liburuaren etekin guztiak Mumbayn sortu duen liburu-kafetegira doaz. Liburu erostearekin kafe bat dut ordaindurik bere kafetegian. Beraz, nik ere amets egingo dut eta egunen batean kafe hori hartuko dudala pentsatuko dut.

Esperientzia guzti honetako hoberekin Amin ezagutzea, eta ondoren liburuan irakurri ditudanak zuzenean entzutea.

Bada bizitzan borrokatzea tokatu zaion jendea, horietako bat Amin. Zorte on bidaiarekin, Amin!



Dantzarima konpainiako eta Milakolore elkarteko kideak entseguan.

Dantzarimako eta Milakoloreko dantzarien ikuskizuna

Milakolore Dantzan ikuskizuna izanen da abenduaren 26an, asteartean, 19:30ean, Iortia kultur gunean

ALTSASU

"*Milakolore Dantzan* ikuskizunean koloreak eta bakoitzak barruan duen esentzia uztartzen dituen ikuskizun bat da". Irantzuz Gonzalez Dantzarima dantza konpainiaren zuzendariak Milakolore elkarteko kideen "arte" plazaratzea garrantzitsua dela azaldu du. Asteartean, abenduaren 26an, 19:30ean, kanporatuko dituzten "barruan dituzten koloreak", Iortia kultur gunean izanen den emanaldian.

Milakolore elkarteak behar bereziak dituzten pertsonen elkarte bat da. Urteekin "kuadrilla bat" bihurtu da, Virginia Ruiz de Eginok elkarteko zuzendariaren esanetan. Milakolore eta Gonzalezen arteko harremana aspaldi hasi zen, izan ere, dantzariak Maite Leon dantza eskolan psico ballet ikasketak egin zituen Madrilén, eta Sakanara itzuli zenean el-

kartearen boluntario izan zen. Hortaz, elkarteko kideek "barruan zuten artea" ezagutzen zuten. "Dantza konpainia zegoenez aurrera egitea erabaki genuen". Dantza "transmisio" eta "komunikazio aske" tresna bat da.

Dantzarima dantza konpainiaren eta Milakolore elkartearen arteko elkarlana aspaldi hasi zen, Dantzarimak *Sustraiak* ikuskizuna egin zuenetik, hain zuzen. Ikuskizun honetan elkarteko hainbat kide ateratzen ziren koreografia bat egiten. Izar hautsa konpainiaren bigarren ikuskizunean errepikatu zuten. Oraingoan, guztiak dantzariak direla erakutsiko dute, eta agertokian presentzia berdina egingen dute. Gainera, "bitzita duen ikuskizun bat da eta ikus-entzuleak hunkituko dira". Festa bat egingen dutela dio Gonzalezek.

Etxarriko Aranazko abesbatzaren 'Pax' mezua, igandean

Kontzertua egingen du Etxarri Aranazko abesbatzak igandean, abenduaren 23an, 19:00etan, Etxarriko elizan. Abesbatza txikiak ere parte hartuko du

Eguberri oporretako hasieran egingen du Etxarri Aranazko abesbatzak kontzertua, abenduaren 23an, baina ez da Gabonetako kontzertua izanen. Hortaz, Pax deitutako emanaldia

eginen dute abeslariak. 19:00etan izanen da kontzertua, elizan. Abesbatza txikiak ere parte hartuko du. Emanaldi hunkigarria izanen dela aurreratu dute abesbatzako kideak.

Hevenu Shalom Aleichem, The Lamb, Imagine eta *O Note Lux bezalako abestiak* kantatuko ditu Etxarri Aranazko abesbatzak. *Agnus dei, De Pacem Dorrina, Aquarius* eta *Let the sunshine in, Silent night* eta *Nere etxea* abestiek osatuko dute erreperitorioa.



Sutan dantza taldeko kideak. UTZITAKOA

Sutan dantza taldea entzuleen gogokoenak

Gaztea Dantzan lehiaketan parte hartu zuen eta bozkekin erabakitako saria irabazi du

ALTSASU

Igone Augustu, Nerea Llamas eta Leire Bujanda dantzari altsasuarrek osatzen dute Sutan taldea. Gaztea Dantzan Gaztea Irratiaren dantza-bideo lehiaketarekin aurkeztu dute taldea. "Hainbat proiektu genituen buruan eta Gaztea Dantzan lehiaketa horietako bat izan da". Bideoa aurkeztu zuten eta entzuleen bozkek erabaki dute Altsasu Sutan bideoa hoberena dela. 1000 euroko saria jaso dute.

70 bideo baino gehiago aurkeztu ziren Gaztea Dantzan lehiaketara. Horietatik epaimahaiak 25 finalista aukeratu zituen. Eta Altsasu Sutan finalistetako bat izan zen. Entzuleek aste bat izan dute bozka emateko. "Lehenengo egunetik indar handiarekin hasi ginen bozka jasotzen". 880 bozka jaso zituzten, gutxi gora behera.

Koreografia "indartsua" sortu zuten dantzariak. "Irantzuz Gonzalez Dantza Eskolako *Zarata* ikuskizunerako sortu genuen eta aurrerago eraman dugu". Bideo ikusgarria egin zuen Dronetik Ariworks-ek. Bideoa egiten "asko busti" zirela eta "gaizki" pasatu zutela aitortu dute, "baina merezi izan du". Koreografia berdina egingen dute Burgosko dantza lehiaketa batean.



'Magic Melody' ikuskizunaren aurkezpena.

'Magic Melody' ikuskizunak musika eta magia uztartuko ditu

Haize Berriak bandaren eta Hodei Magoren ikuskizuna bihar izanen da 18:00etan eta 20:30ean, Iortian

ALTSASU

Magia eta musika. Ilusioa sortzeko bi arte diziplina ezberdin, eta biak batu dituzte Hodei Magoak eta Haize Berriak musika bandak. Bihar, abenduaren 22an, larunbatean, *Magic Melody* ikuskizuna egingen dute Iortia kultur gunean. Bi emanaldi egonen dira, 18:00etan eta 20:30ean.

Hainbat diziplinetako Sakanako artistekin fusioa egiteko filosofia aspaldi hasi zuen Haize Berriak bandak. Helburua "artista horiek plazaratzea da, egiten dutena ezagutaraztea", Iosu Rubia Haize Berriak bandako kideak azaldu duen bezala. Bide batez, "zerbait berritzailea egitea gustatzen zaigu", aitortu du Luis Orduña bandako zuzendariak. Bandaren dinamika dela esan du zuzendariak.

Bihar mustuko dute ikuskizuna "bakarra" izanen da. Hortaz, Altsasun bakarrik ikusi ahaliko da Hodei Magoak adierazi duen bezala. "Altsasun egiteko prestatu dugu eta ez da berriz errepikatuko". Gainera, Nafarroako "holako ikuskizun bat" egiten dela lehenengo aldia da. Hau da, magia eta zuzeneko musika elkartzaren diren ikuskizun bat lehen aldiz egingen da Iortian.

Musika eta magia. Magia eta musika. Biak batera arituko dira biharko *Magic Melody* ikuskizunean. Orduñaren esanetan: "Ez da inolaz ere Hodei magia egiten egonen dela eta guk birtartean soinu banda jartzen dugula". Baina ez da Haize Berriaren kontzertu bat Hodei

Magoaren kolaborazioarekin ere. "Bi diziplinak batera doaz". Hodei Magoak azaldu duenez, biek protagonismo berdina izanen dute, "uztartuko dira", nahiz eta hainbatetan batek edo besteek indar gehiago izanen duten.

Publiko guztietarako ikuskizun bat da. "Batzuetan pentsatzen dugu magia haurrendako dela, eta musika banda helduendako". Baina, ikuskizuneko artistak diotenez, ez da zertan horrela izan behar. Ilusioa duten pertsonendako da. Beraz, "magia helduei gerturatzeko modu oso polita izanen da, eta alderantziz, haur batendako aspergarria suerta daitekeen musika banda beste modu batez erakusteko balio izanen du ere".

Ikuskizunean 5.200 karta egonen dira jokoan. "Horrek ikuskizunaren handitasuna erakusten du". Formatu handiko magia ikuskizun bat izanen dela azaldu du Hodei Magoak. "Ikuskizun honetarako propio sortutako zenbakiak egin ditut". Haize Berriak bandak ere *Magic Melody* ikuskizunean estreinatuko dituen abestiak prestatu ditu. Musika-ren aldetik "mota guztietako musika" egonen dela adierazi dute artistek: Disney-ko abestiak, Raphael edo Nino Bravo abeslarien kantak arte, musika klasikotik pasatzen. Nahiz eta Eguberrietan egon Gabonetako emanaldi bat ez dela izanen adierazi dute. Magia asko egonen da, hori bai. "Sorpresa asko egonen dira ere. Musikariak magia egingen dute, esaterako".

11 GALDERA



Dokumentaleko lantaldeko kideetako batzuk: Rosa Mendoza, Mari Jose Mendoza, Conchi Cerdan, Maider Perkaz eta Olatz Irizar. UTZITAKOA

"Elkarrizketei bestela ez zitzaien zukurik ateratzen"

Ziordiarrek Ziordiaz egindako dokumentala mustuko dute domekan: "Ziordiko ilargia". Elkartearen izanaren dira emanaldiak: 11:45ean haurrendako eta 13:00etan eta 19:00etan helduendako. Lanaz Olatz Irizar Martinez zinegotziarekin hizketatu gara

Alfredo Alvaro Igoa ZIORDIA

1 Izenburua, nondik dator?

Ilargia, neurri batean, haria da. Ilargia eta Urbasa dira elementu garrantzitsuenak.

2 Nolaz sortu zen dokumentala?

Labrit Multimediakoek Nafarroa osoan XX. mende hasierako herrietako bizitzari buruz-

ko testigantzak jaso zituzten. Ziordian 8 elkarrizketa egin zituzten 2006an. Haiekin herri batzuetan dokumentalak, film laburrak edo halakoak egin ziren. Ziordiko udaletxean disko gogor batean zeuden. Dokumentala egitea pentsatu genuen. Beharrezkoa zela iruditzen zitzaigun, bestela elkarrizketei ez zitzaien inolako zukurik ateratzen.

3 Zein elkarrizketatu zituzten?

Jose Agirre, Jose Aramendia, Angel Arrese, Milagros Mujika, Miguel Gonzalez, Antonio Otsoa, Placido Mendoza eta Angeles Martinez. Aurreneko hirurak dagoeneko hilda daude.

4 Prestatzen, zenbat denbora?

Duela pare bat urte serio hartu genuen. Labrit Multime-

diakoekin harremanetan jarri ginen eta zer egin zitekeen galdetu genien. Haiek aurrekontua egin eta ideia batzuk eman zitiguten. Eta orain urtea egingen du lantalde bat martxan jarri gina.

5 Zeinek parte hartu lantaldean?

Itsasne Mendiñeta, Javi Legaz, Naiara Perkaz, Rosa Mendoza, Mari Jose Mendoza, Conchi Cerdan, Maider Perkaz eta udaletik ni.

6 Nola banatu dituzue lanak?

Labriteko Amaia Arrietak eta Uxue Etxebestek gidioa eta koordinazio egin dituzte. Herrian behar ziren gauzez arduratu gara gu: egoeren erreproduktio-rako ia-ia 80 pertsona lortu ditugu, haien jantziak, eszenatokiak... Kameraz eta muntaiaz Iban Toledo eta Aloña Jauregi

arduratu dira. Musikaz Ion Celestino arduratu da. Aita Donostiak 1920an Ziordian jasotako *Dozen erditxu bat bertsu* kantan oinarritu da hura sortzeko.

7 Eszena berreginak, zenbat?

Zazpi edo zortzi. Bi egunetan egon ginen grabatzen.

8 Ziordiarrek kamera aurrean jartzeko prest?

Bai. Jendeak oso-oso ondo hartu du. Egia da momentu batean Iban eta Aloña gurekin pixka bat haserretu zirela. Hainbeste jendek parte hartu nahi zuen denak sartu nahi genituela. Bien arteko oreka hori... Beste lan bat egiteko gogoia piztu da.

9 Nolako lana sortu duzue?

Ez dut dokumentala ikusi. Hori bai, saiatu gara antzezpenetan elkarrizketatuaren senideak egoten, kasu askotan ezinezkoa izan bada ere.

10 Lanaren kopiak eskuratzetik?

Urtero egutegi bat banatzen dugu eta egutegiarekin batera DVDa banatuko dugu. Udaletxean erroldatu bakoitzeko 2 kopia izanen dira. Ilbeltzaren 30erako soberan daudenak liburutegira eramanez dira, nahi dutenendako.

11 Zergatik haurrendako emanaldia?

52 minutuko dokumentala da, eta denok dakigu haurrak denbora luzez adi egotea oso zaila dela. Zarata sortu behar badute, haiendako saioan sortu dezatela eta beste bi emanaldietan herritar helduek ondo entzuteko aukera izan dezatela.

Osorik: www.guaixe.eus

Barzkide sarituak

Ilbeltzeko sariak:

- Idoia Ruiz de Alegria Arostegi (Arbizu)
- Natividad Jauregi Ezkurdia (Etxarri A.)
- Nuria Ongai Tere (Uharte Arakil)
- Beti Yaten Elkartea (Altsasu)

1. SARIA:
EKAINBERRI KOBAZULOAK: 2 SARRERA
ARTAZAKO KANPINA: %10EKO DESKONTUA
LACTURALE: ESNEKI LOTEA
GAZTEZULO: 3 HILABETEZ DOAN

2., 3. ETA 4. SARIA:
ARTAZAKO KANPINA: %10EKO DESKONTUA
LACTURALE: ESNEKI LOTEA
GAZTEZULO: 3 HILABETEZ DOAN





Ekain berri





